

# Urtekaria



**A G I R R E**  
**H O R T Z K L I N I K A**

Nagore Agirre Odontologoa  
Alaitz Agirre Odontologoa

*Urte  
berri on!*

RPS: 50/19

Ibargarai 32, behea BERGARA | [agirrehortzklinika@gmail.com](mailto:agirrehortzklinika@gmail.com) | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28



*Zero kilometroko hedabidea.  
2023 on!*

Edune Kortabarria  
artista aramaioarrak  
Goienarendako egindako irudia.

**goiena**<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

## AURKIBIDEA

## URTEKARIA DEBAGOIENA 2022

## Urtea hilabetez hilabete

|           |    |
|-----------|----|
| Urtarrila | 4  |
| Otsaila   | 6  |
| Martxo    | 8  |
| Apirila   | 10 |
| Maiatza   | 12 |
| Ekaina    | 14 |
| Uztaila   | 16 |
| Abuztua   | 18 |
| Iraila    | 20 |
| Urria     | 22 |
| Azaroa    | 24 |
| Abendua   | 26 |

## Protagonistak

|  |    |
|--|----|
|  | 28 |
|--|----|

## Aztergai

|               |    |
|---------------|----|
| Gizartea 2022 | 30 |
| Ekonomia 2022 | 32 |
| Kirola 2022   | 34 |
| Kultura 2022  | 36 |

## Urteko pozak eta penak

|  |    |
|--|----|
|  | 38 |
|--|----|

## EDITORIALA

## Pandemia ostean, gerra eta energia-krisia

Bi gertakarik baldintzatu dute amaitzera doan 2022 hau. Batetik, COVID-19aren pandemiaren eta, horrekin batera, neurri murriztaileen amaierak. Lehengo normaltasuna berreskuratu du gizarteak, salbuespenak salbuespen, eta bi urteko amesgaiztoa burutik kendu dute herritarrek. Bestetik, izurritea ahazteaz bat, Errusiak Ukrainari eraso egin izanak bi herrialdeen arteko gerra ekarri du. Gerraren ondorioak zuzenean pairatu dituzte ukrainarrek, bereziki, eta errusiarrek, baina baita Europako mendebaldeko herritarrek ere. Gerrak areagotu duen energiarekiko mendekotasunak, lehen-gaien eskasiak –pandemiaren paralisiaiatik– eta kontsumorako prezioen gorakadak herritar guztien poltsikoan eragin du.

Gerrak ekarri du ukrainarrak erbesteratzea. Beren herrialdetik ihesi heldu dira Debagoienara. Oñatiko Larraña Etxean artatu dituzte errefuxiatu asko, baina baita hainbat familiak beren etxeetan ere; bat-batean egoera zaurgarrian geratu diren gerrako ama-umeekiko elkartasuna erakutsi dute.

## Eolikoak, eguzki-plakak eta beste

Energiarekiko mendekotasunak eta argindarraren, gasaren eta gasolioaren garestitzeak ekarri dute trantsizio energetikoa azkartzea. Edo, behinik behin, aldaketaren beharra onartzea gaiarekiko sentiberatasun eta interes berezia duten taldeek eta herritarrek ez ezik, baita agintariek ere. Eta urratsak egiten hasi dira. Norvegiako Statkraft konpainia publikoak interesa azaldu du parke eolikoak jartzeko, besteak beste, Aramaioiko eta Eskoriatzako lurretan. D2030 proiektuaren bultzagile nagusietako bat den Fagor Taldeak ez du begi txarrez ikusi ekimena, eta alderdi politikoen artean ere ez da erabateko kontrako jarrerarik agertu. Baina aurkako ahotsak azaleratu dira, Mendiak Bizirik taldearen aldetik eta hainbat herritarren aldetik. Bereziki, Aramaion. Elosuan ere egin dituzte protesta-ekimenak. Aldi berean, dena den, herririk herri gorputzen joan dira energia mota berriak sustatzeko ekimen zehatzak: Ekiola, Leintz aldean; Berener, Bergaran; Oñatin eta Elgetan ere bai, energia-mahaien bidez... Benetako urratsak egiten hasi dira energia

fosilekiko mendekotasuna gutxitzen joateko. Horretan 2022a mugarri izan daiteke.

Agintaldiaren amaiera, bertan; 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara begira jarriak dira alderdi politikoak. Gertuko erakundeetan agintean izan direnendako ez da laurteko samurra izan. Alarma egoera bat kudeatu behar izan dute eta hainbat proiektu atzeratu. Baina beste hainbat errealitate dira eta horiek erakutsi ahalko diete herritarrei. Erabakietan asmatu duten edo ez botoek esango dute. Alkate batzuek agur esango dute; beste batzuek, herri nagusietakoek, dagoeneko publiko egin dute alkategai izango direla: Maria Ubarretxena Arrasaten, Gorka Artola Bergaran eta Izaro Elorza Oñatin ahaleginduko dira berriro alkate irteten. Ez dira hilabete samurrak alderdiendako: geroago eta zailagoa da hauteskundeetarako zerrendak osatzea.

Ulma-Mondragon aferari buruz asko idatzi da. Baina gizarteak badaki zeintzuk diren Oñatiko eta Arrasateko kooperatiba taldeen arteko urruntzearen benetako arrazoiak? Ulma Taldeko eta Mondragon Korporazioko beste kooperatibetako lan-bazkideek arrazoi horien berri baldin badakite, gaitz erdi. Kontuak kontu, duela hamabost egun eskas egindako ezohiko batzar nagusian, botoa eman zuten Ulma Taldeko hamar lan-bazkideetik zortzik erabaki zuten

bidea beren aldetik egitea. Denborak esango du Korporaziotik irtetea erabaki zuzena izan den edo ez.

Kirol eta kultura, azken lerroetan. Danbaka itzuli da, 12 urteren ostean. Agertoki berrian, Bergarako Seminarixoa, baina betiko izaerari eutsiz: Debagoieneko musika taldeei kalitatezko aukera eskaintzea. Bestetik, hiru musika festibal: Ekinez Bergaran –geratzeko etorri dena, datorren urteko ekainean bigarren edizioa izango baita–, Mondra & Roll Arrasaten; eta Elgetan, Josu Azkarate omentzeko egindako punk-oi! jaialdia. Lau ekimenak arrakastatsuak. Ezin ahaztu *Hazia* musikala, Arizmendiarraren Lagunak Elkarteak sustatuta. Eta kiroletan, osasuntsu mendi lasterketak. Aurten, beste bi gehitu dira: Intxortako Ahuntzak eta Aretxabaletako Ikazkin. Bizitza luzea izan dezatela.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.

**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzardea**  
Eneko Azkarate,  
Monika Belastegi,  
Mirari Altube,  
Goiatz Arana.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.

**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Erredakzioa**  
Jone Olabarria, Hasier Larrea, Larraitz Zeberio,  
Mireia Bikuña, Imanol Beloki, Miren Arregi,  
Arantzazu Ezkibel, Xabier Urzelai, Aitziber Aranburuzabala, Eneko Azurmendi, Jokin Bereziartua, Oihana Elortza,  
Mirari Altube, Maider Arregi.

**Argazkiak**  
Erredakzioa, Irekia,  
Bernat Alberdi.

**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.

**Publizitatea**  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.

**Administrazioa**  
Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola,  
Leire Uribe, Iraitz Zabala.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00

[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:**  
SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.500 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Honako urtekari honen edizioa abenduaren 22an itxi du Goienak.

Gipuzkoako Foru Aldundia

## DEBAGOIENA

**COVID funtsetatik, 2 milioi euro udalei**

Espainiako Gobernuak, pandemiak eragindako ezohiko gastuei aurre egiteko, 69,2 milioi euro bideratu zituen Gipuzkoara. Zerbitzuak "indartzeko", %40 udalei bideratu zitzaizkien; Debagoienera, bi milioi.

## ARRASATE

**Jokin Zaitegi Bekaren lanak**

Urtarrilaren 31n aurkeztu zituzten. Garazi Ugaldek Louise Glück olerkari estatubatuararen 'Basairisa' poema bilduma euskaratu zuen eta Xabi Payak Bob Dylan konpositorearen 100 kantu.

## DEBAGOIENA

**'Eresia' antzezlanak aurkeztu zuten**

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* ekimenaren barruan sortutako lana Seminarixoan estreinatu zuten, hilaren 15ean. Oier Zuñigak zuzendu eta Belen Cruzek eta Eneko Gilek parte hartzen dute.

## ARETXABALETA

**Kepa Errasti Aktorea**

Hika teatroren *Tarara* lanarekin izan zen Aretxabaletan. "Gogorra" bezain "beharrezkoa" den obran, Errasti da barkamenari buruzko drama musikatuko protagonistetako bat.



## DEBAGOIENA

**Bailarako presentzia Sabino Arana sarietan**

Sei saritu izan ziren hilaren 29an Arriaga antzokian banatu zituzten Sabino Arana sarietan, eta hirutan bailarak presentzia izan zuten: Luis Ugalde jesuita bergararra, Izaskun Arriaran aramaioarra presidente den *Aita Mari* erreskate-ontzia eta MUren gastronomia fakultate den Basque Culinary Center saritu zituzten.



## DEBAGOIENA

**Azken agurra Xanti Iparragirre eta Danel Goikoleari**

Euskaltzalea, abertzalea, herrigintzan ekintzailea eta bertsolari zein bertsozalea, Xanti Iparragirre urtarrilaren 2an zendu zen, Eskoriatzan. Haren maisu Iparragirre azken bertso publikoa eskainita, hilaren 17an hil zen Danel Goikolea euskaltzale eta artista arrasatearra. Biek omenaldi hunkigarria jaso zuten.



## DEBAGOIENA

**Debagoieneko Antzerki Plataforma aurkeztu zuten**

Debagoieneko Antzerki Plataformak aurrera begirako asmoen berri eman zuen urtarrilean. 2022ko lehen sei hilabeteetan formakuntzarekin jarraitzeko asmoa agertu zuten. Urtarrilaren 29an, herririk herri ibili ziren DAPekoak, asmoen eta ildo nagusien berri ematen; betiere, umoretik.



## DEBAGOIENA

**Berrurbanizazio lanak hasi zituzten bailarako herrietan**

Begarako Zubieta eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko lanak hasi zituzten, 18 hilabeteko exekuzio-epearekin. Egun berean ere ekin zieten Aretxabaletako Santa Krutz kaleko lanei; lur azpiko hornidura berri eta berrurbanizatzeko. Arrasaten ere urbanizazio lanak hasi zituzten, Gautxori eremuan.

## ARAMAIO

**Arabako txotx denboraldiari hasiera Iturrieta sagardotegian**

Aritz Ganboa artzainaren esku-tik, 2022ko sagardo denboraldiari egin zioten ongi-etorria urtarrilaren 20an Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Uzta oparoko txotx sasoian, 100.000 litro sagardo ekoiztu zituzten Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkarteko hiru ekoizleek; 2020ko kopurua gainditu zuten.



**EGUZKIGRAF inprimategia**  
 Tel.: 943 79 18 44  
 info@eguzkigraf.com  
 Industrialdea F-O-4  
 ARETXABALETA

*2023a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.*  
*Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskaintzen segituko dugulakoan.*

**ARRASATE****Jexux Murgiondo hil zen hilaren 20an**

1986an Euskadiko Euskal Pilota Federazioa eratu zenean lehenengo presidente hautatu zuten Jexux Murgiondo urtarrilaren 20an hil zen, 90 urte zituela. Jaiotzez oñatiarra, Arrasaten bizi zen.

**ARRASATE****Maria Jose Gil** Atleta

Urtarrilaren 8an Donostian jokaturako Euskadiko Masters Txapelketan Espainiako 400 metroko errekorra ondu zuen, 81 urterekin, bi minutu eta segundo bateko marka eginda.

**BERGARA****Kukubasoren lehen landaketa**

Agirretxeberri baserriko lurretan 330 bat astigar eta haritz landatu zituzten hilaren 29an. Ia bi hektareako eremuaren zaintza Kukubasoren ardura izango da datozen 25 urteetan, baita bertako basoaren garapena.

**BERGARA****Aitor Arregi** Futbolaria

Atzelari bergararra Amorebietan zebilen jokatzeko, Bigarren Mailan, eta atzeko lerroa indartzeko fitxatu zuen, neguko merkatuan, Bigarren B Mailan Logroñes taldeak.



**KORONABIRUSA**
**DEBAGOIENA****Antigeno testak, gehienez, 2,94 eurotan salgai**

Botiketean saltzen dituzten autodiagnostikorako antigeno testen prezioa arautu, eta 2,94 eurotan finkatu zuen gehienezko salneurria, urtarrilaren 15etik aurrera, Espainiako Osasun Ministerioaren organoak. Gogoratu behar da seigarren olatuak eraginda antigeno testak agortuta egon zirela.

**DEBAGOIENA****'COVID ziurtagiria'-ren aurkako manifestazioa**

Arrasateko Seber Altube plazan hasi eta bukatu zen urtarrilaren 4ko iluntzerako COVID ziurtagiria-ren kontra ibarreko hainbat taldek deitutako manifestazioa. COVID paseari ez lelopean burutu zuten mobilizazioan ehunka herritarrek hartu zuten parte eta antolatzaileek erantzunaren "balorazio positiboa" egin zuten.

**DEBAGOIENA****Bergara-Beasain errepidea, ordainpekoa**

Urtarrilaren 18an jarri zuten martxan Beasain eta Bergara arteko A-636 autobidea ordaintzeko free flow sistema. Ohiko kabinen ordeztu arku batzuk zeharkatu, eta ordainketak telematikoki egiteko sistema ezarri zuten. Bidesaria ezarri aurretik, 2020an zehar autobidean bidesaririk ez jartzeko helburuarekin protesta ugari egin ziren.

**DEBAGOIENA****Urtarril hotzean, izotza izan zen protagonista nagusia**


Urtarrilaren 24tik 25erako gauean, esate baterako, tenperaturak zero azpitik geratu ziren. Euskalmet meteorologia agentziak emandako datuen arabera, Oñati izan zen herri hotzenetako bat: 2,5 gradu zero azpitik. Goizeko hamarretan, ia bi gradu zeropetik neurtu zituzten bertan.

**ANTZUOLA****Rokodromo berria Eguzki auzoko gazte txokoan**

Antzuolako Udalak 2021ean egin zuen herriko aisialdi-guneen gaineko parte hartze prozesua. Orduan hartutako erabakiak gauzatzen eta errealitate egiten hasi ziren urte berriarekin batera; horietako bat izan zen urtarrilaren 31an inauguratu zuten Eguzki auzoko gazte txokoko rokodromoa.

**Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak**

RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17  
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
 clinicagorosabel

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zurrutzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- Ezpainen estetika eta aurpegiko zimurak betetzeko tratamenduak (azido hialuronikoa).

*Urte berri on!***1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!**

## ARRASATE

**TAO kobratzen hasi ziren**

Abenduaren 4an jarri zuten martxan TAO sistema berria, eta, bi hileko probaldiaren ostean, TAOko langileak isunak jartzen hasi ziren arau-hausteengatik. Oposizioak hausnarketa eskatu zion Gobernuari.

## OÑATI

**Eukaliptoen landaketa debekatu zuten**

Landaketak debekatzea eskatu zuten herriko hainbat eragilek. Eskaera hori bere egin zuen EH Bilduk, eta mozio bidez eraman zuen hilaren 24an egindako ohiko osoko bilkurara. EAJ aurka agertu zen.

## ESKORIATZA

**Jesus Urrutia** Musikaria

Musika bandako zuzendariak La Pobra de Vallbonako musika konposizioko lehen saria jaso zuen, Arturo Balaguer saria. *Hathor garden* lana aurkeztuta, 5.000 euroko saria jaso zuen.



## ANTZUOLA

**Berdintasun diagnosis aurkeztu zuten**

Geroz eta Antzuola parekideagoa jomugan, lan lerroak identifikatu eta iaz abiatu zuten herriko berdintasun diagnosis egiteko egitasmoa Emagin elkartearekin elkarlanean.



## ARETXABALETA

**ALEk enpresekin berri zuten hitzarmenak**

Orain arteko hitzarmenak berrikusi eta hobetzeko asmoz eta ikasleen lan-merkaturatzea bermatze aldera, Aretxabaletako Lanbide Eskolak Fagor Industrialekin eta Ulmarekin zituen aliantzak eguneratu zituen. Enpresen partetik soldadura eta galdaragintza alorrean dagoen eskari handia azpimarratu zuten hiru aldeek.

 **KORONABIRUSA**

## DEBAGOIENA

**Neurri murriztaile gehienak bertan behera geratu ziren**

Maskara barruko espazioetan erabiltzeko derrigortasunak eta kirol ekitaldien edukiera mugak soilik jarraitu zuten indarrean otsailaren 14tik aurrera. Bertan behera geratu ziren ostalaritzarako 01:00etako ordutegi muga, %60ko edukiera muga, gehienez hamar lagun batzeko araua eta barran kontsumitzeko debekua.

## DEBAGOIENA

**Torturaren Aurkako Egunean, testigantzak eta ekimenak**

Torturaren inguruko saioa egin zuten Bergaran, Sortuk antolatuta eta Julen Arzuaga EH Bilduko legebiltzarkidea eta Eukene Gracia eta Xabier Arregi herrikideak hizlari. Arrasateko Sortuk antolatuta, tortura salaketa jarri duten 111 herritarren aitortza eta erreparazioa eskatu zituzten Herriko Plazan.

## DEBAGOIENA

**Aratuste jendetsuak, normaltasunetik gertuago**

Urteko festa egun ganberroena bueltan izan zen bailaran. Irudimen eztanda koloretsuak giro bero-beroa jarri zuen herriz herri. Dantza, kantu, antzeppen eta musikaz lagunduta, askotariko pertsonaiak hezurmamitu zituzten herritarrek. Aspaldiko ohitura berreskuratuta eta aurtengo berezitasun gisa, koko-batzea egin zuten Elgetan.



## OÑATI

**Pello Zabala hil zen otsailaren 2an, 78 urte zituela**

Arratsaldean zendu zen Pello Zabala amezketarra, 78 urterekin, hamarkada luzez Arantzazuko Santutegian bizi izan zen frantziskotarra. Euskal Herriko esparru, erakunde, alderdi politiko eta gizarte eragile askotariko norbanako ezagun eta anonimoak joan ziren Arantzazura, azken agurrera.



# MARTIN frutategia

Frutan eta txarkuterian espezialista

*Urte herri on!*

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

**DEBAGOIENA**

**Bi debagoiendar EAren albo banatan**

XIII. Nazio Biltzarreko kongresuan, Maider Otamendi eskoriatzarra EAko zuzendaritza nazionalako kide egin zuten. Alderdiaren ildo kritikoa, bozeramaile izendatu zuten Esther Larrañaga arrasatearra.

**ANTZUOLA**

**Ibai Larrea** Korrikalaria

Antzuolako 8 Miliak lasterketa irabazi zuen lehen antzuolarra izan zen Ibai Larrea. Iñigo Alzolarekin lehia estua mantendu ostean, probako errekorra ezarri zuen Larreak: 1.02.52.



**ESKORIATZA**

**Arana ahizpen 'Erre' ikuskizuna abian**

Eskoriatzako Oihana eta Haizea Arana ahizpek, Aner Peritzek eta Leire Vargasek sortu zuten askotariko diziplinak batzen dituen *Erre* ikuskizuna. Durangon estreinatu zuten otsailaren 5ean.

**OÑATI**

**Eider Egaña** Futbolaria

Futboleko Lehen Mailan jokatu duen lehen emakume oñatiarra omendu zuten. Hazten ikusi zuen Aloña Mendiren eta Eibarren arteko partidaren egin zuten ohorezko saka.



**DEBAGOIENA**

**Osakidetzako langileak, akordio berri eskean**

Osasun langileek Lehen Mailako Arretan egin zituzten lanuzteak otsaileko azken astean, baita mobilizazioak ere EAeko hiriburuetan. Osakidetzako zerbitzu guztietara hedatu zuten greba. Duela hamahiru urte sinatutako akordioa berritzeko "borondate falta" eta Osasun Sailaren kudeaketa salatu zuten.



**BERGARA**

**Udal Artxiboa herritarren eskura, webgune berritan**

Ia bi urteko lanaren ostean, webgune berritua aurkeztu zuen Bergarako Artxiboak. Itxura aldaketaz gain, erabilera errazagoa eskaini eta argazkiak zuzenean deskargatzeko aukera ere eskaintzen du. Guztira, 23.000 testu baino gehiago daude, eta 36.000 argazki inguru.



**DEBAGOIENA**

**Bailarako sei ziklista Euskadi Fundazioan**

Hilaren 23an aurkeztu zituen ofizialki taldeak Euskadi fundazioak, sei debagoiendarrekin: emakumezkoen Laboral Kutxa-Euskadi taldean, Olatz Gabilondo eta Xubane Garai eta Garazi Estevez; gizonzkoen Laboral Kutxa-Euskadin, Danel Casais; eta Euskaltel-Euskadin, Mikel Aristi eta Julen Irizar.



**BERGARA**

**Lan mundua euskalduntzeagatik aitortza**

Lan esparruan euskararen erabilera indartzeko ahaleginean nabarmendu diren enpresa, ikastetxe eta ikasleei aitortza egin zieten hilaren 18an, *LH DuaLa euskaraz* ekitaldian. Goizper Group, Astigarraga KIT LINE eta VIVE Biotech enpresek aitortza berezia jaso zuten Miguel Altuna Institutuan.

**DEBAGOIENA**

**Korrika prestatzeko, koordinatzaileak eta batzordeak gertu**

Eskualdeko Korrikako koordinatzailea aukeratu eta herrieta-ko batzordeak sortu zituzten; hala abiatu zuten Korrikaren antolaketa. Ikuska Lizarralde Korrikaren Debagoieneko koordinatzaileak orduan azaldu zenez, egitaraua, lanen antolaketa, Korrika Kulturala eta beste hainbat kontu antolatzen aritu ziren.



## BERGARA

**Herri-galdeketa Angiozarren**

Bizilagunen %70eko parte-hartzearekin, Bergarako Udaletik deszentralizatzeko prozesuarekin jarraitzearen alde azaldu zen angiozartarren gehiengoak –145etik 130–, martxoaren 27an egindako bozketan.

## BERGARA

**Ainhoa Salillas** Atezaina

Txuri-Urdin izotz-hockey talde donostiarrarekin liga erregularra irabazi zuen martxoaren 20an 17 urteko atezainak. Apirilaren 8an, gainera, Erreginaren Kopa eskuratu zuen.



## DEBAGOIENA

**'Bretxa' eleberria, oholtzara**

Formatu handiko musikalak egiten dituen Bergara Antzerki Musikala Elkarrekin Toti Martinez de Lezearen *Bretxa* lanari helduko ziola iragarri zuen hilaren 15ean. Donostian aurkeztuko dute, urtarrilaren 13an.

## ARETXABAETA

**Andoni Urzelai** Idazlea

Haren bosgarren liburua, *Ametsen trafikatzaila* izeneko eleberria, aurkeztu zuen hilaren 11n: "Delirioaren azpimunduan gertatzen da kontaketa guztia", adierazi zuen.



## BERGARA

**Ayastuyren eta Elkororen ekarpenari aitortza**

Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei Saria banatu zieten Mari Karmen Ayastuyri eta Jose Luis Elkorori martxoaren 10ean, Seminarixoan, "Euskal Herriari, euskal kulturari eta euskarari bizi osoko lana" eskaini izanagatik. Saridunak "oso eskertuta eta hunkituta" agertu ziren.



## DEBAGOIENA

**Abbadia saria Fagor Taldearentzat**

Lan munduan euskararen normalizaziorako egindako urratsak aitortu zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoieneko kooperatiba taldeari martxoaren 25ean, Arrasateko Kulturetako egindako ekitaldian. Irudian, Markel Olano diputatu nagusia Joxean Alustiza Fagor Taldeko lehendakariari Abbadia saria ematen.



## ARAMAIO

**Hamabi emakume erreferenteren erakusketa, kalera**

Aramaioko emakumeen historia berreskuratzen erakusketa inauratu eta bisita gidatua egin zuten Martxoaren 8an. Lierni Altuna alkateak gidatu zuen saioa, eta bertaratutako laguntza izan zuen emakumeei buruzko ekarpenak egiteko. Herriko sei txokotan jarri zituzten protagonisten irudi eta azalpenak.

## DEBAGOIENA

**Gaitzespena, Sahara Marokoko autonomia izateko oniritziagatik**

Pedro Sanchez Espainiako presidentek Marokoko Mohamed VI.a erregeari bidalitako mezua irmoki salatu zuen Debagoienean bizi den saharar komunitateak: "Geure burua ordezkatzeko eskubidea dugunez, hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea da". Irudian, Arrasateko Biteri plazan hilaren 22an egindako bilkura.



## ANTZUOLA

**Arrola elkartearen 50 urteko ibilbidea, liburura eramanda**

Argazkiko Iñigo Ramirez de Okaizek *Arrola 50 urte mendiz mendi* liburua aurkeztu zuen Torresoan hilaren 24an. Testigantzez betetako ikus-entzunezkoa ere proiektatu zuten ekitaldian. Arrola "kirola egiteko talde bat baino gehiago" dela argi utzi zuten proiektuan parte hartu duten antzuolarrek.



EBAKETA  
ZEHATZETIK  
HARATAGO

ELAY EUROPA  
ELAY ASIA  
ELAY AMERIKA  
www.elay.eus

Lizarragako Hiribidea 2/G,  
20577 Antzuola (Gipuzkoa)



**ARRASATE****Isaias Carrasco gogoan, eta liburuan**

Zinegotzi sozialista ETak erail zuenetik 14 urte bete ziren martxoaren 7an, eta haren gertukoek oroimen-ekitaldia egin zioten. Gainera, Antonio Lara idazleak *Askatu* eleberria aurkeztu zuen Kulturaten.

**ARETXABAETA****'Upeide', 'Zurekin bat'-eko saridun**

Aitor Ruiz de Austrik, Beñat Arrietak, Gari Barandiaranek eta Mikel Arrietak osatutako taldeak 51.198 euroko zakua irabazi zuen hilaren 16an, ETB1eko *Zurekin bat* saioan. Laukoteak 27 programa egin zituen.

**OÑATI****Udana zabalik, hiru hilabeteren ostean**

Martxoko azken egunean ireki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Udana mendatea ibilgailu motordunentzat. 2021eko abenduaren 10etik itxita zegoen, euriteen ondorioz errepidea zartatu egin zelako.

**ARAMAIO****Aitor Ugarte** Korrikalaria


Espainiako kilometro bertikaleko txapelketa irabazi zuen martxoaren 12an Ladrillarren (Caceres). Munduko txapelketarako txartela eskuratu zuen modu horretan.

**DEBAGOIENA****Garraiolarien greba, erregaien prezioen igoera salatzeko**

Martxoaren 14tik 30era iraun zuen Hiru eta Tradisna sindikatuetako garraiolariak deitutako grebak. Aldarrikapenen artean, bezeroen tarifak erregaien kostutara egokitzea eta, oro har, sektoreko lan-baldintzak hobetzea eskatu zuten kamioilari autonomoek. Irudian, Jon Ander Arza eta Jokin Rodriguez oñatiarrak.

**DEBAGOIENA****Ukrainako herritarrekin elkartasuna**

Martxoaren 9an, Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak kudeatzen duen Oñatiko Larraña etxeak hamazazpi errefuxiatu jaso zituen, eta horietako sei agertzen dira goiko argazkian. Norbanakoek eta erakundeek ere jarri zuten euren aletxoak, eskumako irudian ikusten den moduan; Ukrainara bidaltzeko material-bilketak eginez, adibidez.

**BERGARA****"Erraustegiari aurre egiteko" taldea: Larramendiko Arnasa**

Martxoaren 15ean, herritar, erakunde eta eragile asko batzen dituen taldea aurkeztu zuten, "San Juan auzoan eraiki nahi den errauste plantari buruz informatu, kontzientziatu eta azpijokoak salatzeke". Valogreene enpresak paper-hondakinak isurtzeko aurkeztutako moduekin "fidagaitz" agertu ziren.

**DEBAGOIENA****Kaleak aldarriz beteta Martxoaren 8an**

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, indarberrituta itzuli ziren aldarri feministak Debagoieneko kaleetara Emakumeen Nazioarteko Egunean. "Gure bizitzak zaintzaren gainean eraikitzen dira, eta ez dugu hori sostengatzeko sistemarik", adierazi zuten emakumeek, askotariko mezuen artean.



RPS: 83/19

**Durana**  
Hortz Klinika

Urte  
berri on!!

**ORTODONTZIA IKUSEZINA**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO  
APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55

## BERGARA

**Skate park berria Labegaraian**

Bai Udala eta bai Gurgildun Oholak elkarteko kideak gustura azaldu ziren hilaren 30eko inaugurazio-ekitaldian, azpiegitura "herritarren, erabiltzaileen eta adituen" ekarpenekin egin zutelako.

## ARRASATE

**Ane Zuazubiskar** Bertsolaria

Bertsolari gazteen txapelketa sonatuenetakoa den Osinalde saria irabazi zuen hilaren 23an Gabirian. "Pozik" azaldu zen arrasatearra, "are gehiago, 50. aldiz" antolatu zutela jakinda.



## ANTZUOLA

**Olaran etxea, birgaituta**

Hilaren 13an egin zuten lanen emaitza erakusteko irekiera ekitaldia. Berrikuntza nagusiak igogailua, sarrera zein erakusketa gelako ate automatikoak eta solairu guztietan egokitutako komunak izan ziren.

## OÑATI

**Itziar Ugarte** Idazlea

Espainiako Kritikaren Saria jaso zuen *Gu gabe ere* poema liburuagatik, apirilaren 13an. "Garai bat kontatzeko nahiak" bultzatuta idatzi zuen estreinako poesia liburua.



## ARRASATE, ARETXABAETA, ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA

**Ekiola kooperatibaren izen-emate fasea**

"Trantsizio energetikoari ekiteko" asmoz aurkeztu zuten urrian, eta apirilean izen-emateari buruzko prozesua nolakoa izango zen eman zuten aditzera Leintz bailarako herrietan. Bazkideak instalazio fotovoltaikoen jabe izatea eta kontsumo elektriko osoaren baliokidea den energia-bolumena sortzea da proiektuaren helburua.



## ARETXABAETA

**Kirol elkarteko presidente izandakoei aitortza**



UDAKo gidari izandako hamalau lagunek urrezko intsignia jaso zuten Aretxabaeta Kirol Elkartearen eskutik, apirilaren 3an. Klubak, guztira, 23 presidente izan ditu 75 urteko historian, eta bizirik daudenak izan ziren omenduak. Ekitaldia Ohorezko Erregional Mailako taldearen partiduaren atsedendaldian egin zuten.


**KORONABIRUSA**

## DEBAGOIENA

**Maskarak derrigorrezkoa izateari utzi zion**

Apirilaren 19an sartu zen indarrean dekretu berria, barrualde gehienetan maskara gabe ibiltzea ahalbidetzen zuena. Hala, osasun zentroetan, adinekoen egoitzetan, farmazietan eta garraio publikoan bakarrik zegoen maskara erabili beharra; ondorioz, lantegietan eta ikastetxeetan pandemia aurreko egoerara itzuli ziren.



## ARRASATE

**Moda desfilea egin zuen Ibai-artek Amaia antzokian**

*Arrasaten erostea beti da gozoa-goa!* lelopean, merkataritza elkarteko hamabost komertziook parte hartu zuten apirilaren 2ko ekitaldian, 65 pertsona modelo lanetan arituta. Hala, udaberri eta uda sasoirako arropak, bitxiak, osagarriak eta etxerako produktuak erakutsi zituzten ibiltoki bihurtutako oholtzan.



## ELGETA

**85 urte tropa frankistak herrian sartu zirenetik**

Apirilaren 24an, Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 elkarteak omenaldi ekitaldia egin zuten, zazpi hilabeteko erresistentzia amaitu baitzen egun hartan, duela 85 urte. 1936 eta 1937 urteen artean gerran hildako 33 elgetarrak oroitu eta frankismoaren aurkako kereiletan lanean dabiltzanei aitortza egin zieten.

# oerlikon

## balzers

Urte  
berri on!

Oerlikon Balzers  
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2  
20577 Antzuola  
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

**OÑATI****Gai mitologikoak, liburura**


Urko Egañak idatzi eta Leire Derteanok marraztutako *Geure mitologia, Potx eta Lotxen ibilerak* kaleratu zuten apirilaren 6an. Bertsoak musikatuta entzun eta ikus daitezke Abaorekin argitaratutako lanean.

**ARETXABALETA****Berriro egin zuten Debagoieneko Dantzari Eguna**

"Egun dotoreaz" gozatu zuten apirilaren 30ean ikusle lepo beteta zegoen Herriko Plazan batutako 200 dantzari inguruk. Aretxabaletako Leizarra dantza taldeak antolatuta, Antzuolako Oinarin, Oñatiko Oñatz eta Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostitz taldeek parte hartu zuten, azken bi urteetako etenaldiaren ostean.

**ARRASATE****Osiñako biribilgune zapalgarria**

Apirilaren 7an ireki zuten saihesbidetik Debagoieneko Ospitalerako bidean dagoen biribilgunea. Aurretik zegoen bidegurutzea ordezkatu zuen Aldundiak modu horretan, "trafikoa seguruagoa" izan zedin.

**BERGARA****Lacor-Ibili Taldea, 2022ko Gipuzkoako Enpresa izendatuta**

Gipuzkoako Bazkundearen sari nagusia jaso zuen hilaren 1ean sukaldeko eta ostalaritzako tresneria egiten duen taldeak. "Nazioartekotze maila handia" eta "salmenta digitaleko estrategia irmoa" aitortu zizkioten sariarekin. Arrasateko Fagor Electronicak ere jaso zuen Enpresa Nazioartekotzea izeneko aitortza.

**OÑATI****Malen Osa** Mendi lasterkaria

Junior mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen, Lugon, apirilaren 24an. Hamalau kilometroko proba ordubete eta hamabi minutuan bukatu zuen, bigarrenari azken jaitsieran alde aterata.

**ARRASATE****Arrasate-Udalatx lasterketa**

Pandemiako etenaren ostean berrantolatu zuten 21 kilometroko zirkuitua, hilaren 10ean. Gizonezkoetan errekor berria ezarri zuen Gontzal Murgoiok; eta Onditz Iturbe izan zen emakumezkoetan onena.

**DEBAGOIENA****Korrikak bailara zeharkatu zuten**

Apirilaren 1eko goizean iritsi zen Korrika Debagoienara, ekitaldia hasi eta biharamunean. 22. aldiz antolatutako euskararen aldeko ekimena Osintxutik sartu zen, eta Deba ibaiaren aurkako noranzkoa jarraitu zuen. Goienak babestutako kilometroan, komunitateko kideek eraman zuten lekukoa Aretxabaletako kaleetan zehar.



# Gualbi

aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

---

ABOKATUAK

---

KONTU IKUSKARIAK

URTE  
BERRI  
ON!!

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48  
onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

## BERGARA

**Alai taldearen azken emanaldia**

Hilaren 7an Seminarioxan emandako 50. urteurrenko kontzertuarekin esan zuten agur Alai kantu taldekoek. Ganbara taldea, Aritzeta abesbatza eta Bergarako Orfeoa izan zituzten bidelagun oholatza gainean.

## ARRASATE

**Miren Apraiz** Duatleta

Azkoitiko Duatloian bigarren helmugaratu zen emakumezkoetan, 2.19.23 denborarekin, eta horrek Distantzia Motzeko Euskadiko Duatloi Txapelketa irabaztea ekarri zion.



## ARRASATE

**Kataideko bidegorri berria prest**

690 metroko trazatu berria maiatzaren 26an inauguratu zuten. Zorua egokitu, espaloiak konpondu eta seinaleztapena zein argitasuna hobetu zituen Foru Aldundiak, 300.000 eurotik gorako inbertsioa eginda.

## ANTZUOLA

**Ibai Larrea** Korrikalaria

Jose Inazio Garitanok 1963an Gorlako Igoeran jarritako marka hobetu zuen hilaren 22an. Antzuolako plazatik Gorlarako joan-etorria 32 minutu eta 2 segundoan egin zuen Larreak.



## BERGARA

**Auzotartasuna indartzeko ekimena**

*Auzoak ala hil* eguna ospatu zuten Osintxun maiatzaren 14an, "auzoak berpizteko eta gazteen parte-hartzea indartzeko" helburuarekin. Azoka, musika eta jolasekin osatu zuten egun osoko egitaraua, eta 250 lagunendako paella erraldoia izan zen otordu nagusia. Datorren urtean Elorregin ospatuko dute eguna.



## ANTZUOLA

**'Zapata Kajatik Herrira' erakusketa ireki zuten**

1957tik 2013ra bitarteko Antzuolako atletismoaren historiari gainbegiratu egin zioten Olaranen, maiatzaren 21ean hasita. Jose Inazio Garitanoren ekimezez, herriko sokatirari eta saskibaloari ere egin zioten tokia, argazkiak, egunkari zatiak, material grafikoa, dominak eta jantziak batuta.



## BERGARA

**Vanesa Gimberti merezitako agurra**

Futbolari bergararra apirilean erretiratu zen, elitean 23 denboraldi eman eta gero. Bergara Kirol Elkartek eta Udalak keinu berezia egin nahi izan zioten maiatzaren 21ean Agorrosinen, denboraldiko azkenengo partiduan. Intsignia, lore sorta, kamiseta eta wolframioa irudikatzen duen apaingarria oparitu zizkieten.

## ARETXABALETA

**Batzoki eraberritua inauguratu zuten EAJko kideek**

Maiatzaren 8ko ekitaldian zabaldu zituzten Durana kaleko eraikin eraberrituko ateak. Xabier Otxoa Uri Buru Batzarreko presidentek eta Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko presidentek hartu zuten hitza. "Euskadiren eraikuntza nazional eta sozialerako EAJ eredu" aldarrikatu zuen Egibarrek.



## DEBAGOIENA

**Bisita gidatuak Gipuzkoako Erroten Egunaren harira**

Bergara, Antzuola, Oñati eta Eskoriatzako errota edo boluen "garrantzi historikoari, teknologikoari, antropologikoari eta etnografikoari" balioa eman nahi izan zioten maiatzaren 8an, Ihurrita Errota elkartearen ekimezez. Zereala ehotzeko, zerrategi bezala edota argindarra garraiatzeko erabili izan ziren errota.



**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6. behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69

*Urte berri on!*



**OÑATI**

**Arkeotopaketak, hilaren 25etik 27ra**

*Oñatiko Unibertsitatea* izena jarri zioten arkeologiaren esparruko 32 ikerlari batu zituen ekitaldiari. Pirinioetako historiaurreko harrizko lehengaiak aztertzen dituzten adituen arteko sarea ehundu zuten bertan.

**ELGETA**

**Baobeer, Ordiziako azokan saritua**

Maite Barrainkuaren eta Mikel Irazabalen Baobeer markak lehen saria jaso zuten *Tafarik Ddh Double Ipa* izeneko garagardo artisaugatik. Hala, Euskal Herri mailako txapela jantzi zuen Elgetako bikoteak.

**ARRASATE**

**Ointxe!, lehenengo mailara**

Mondragon Unibertsitatearen saskibalo taldeko senior mailako emakumezkoak lehen maila nazionalera igo ziren hilaren 22an. Iturripen jokaturako lauko finala irabazteak eman zien txartela.

**OÑATI**

**Mikel Ugarte** Triatlleta



Ironman distantziako Espainiako Triatloi Txapelketan bigarren izan zen, Gironan, hilaren 8an. Txantxiuak 8.35.22ko marka egin zuen, lasterketa irabazi zuenak baino 12 minutu gehiago.



**LEINTZ BAILARA**

**Ekiola kooperatiba aurkeztu zieten herritarrei**

Lehen xehetasunak Arrasateko Amaia antzokian eman zituzten proiektuaren sustatzaileek, maiatzaren 3an. 300 bat lagun bildu ziren bertan, eta ordurako 100 herritar inguruk eginga zuten aurretiazko izen-ematea, irailean abiatuko zen instalazio fotovoltaikoen bazkietze kanpainen lehentasuna izan zezaten.



**ARETXABALETA**

**Futbol talde txapeldunari omenaldia**

1971-1972ko denboraldian Espainiako afizionatu mailako txapelketa irabazi zuten jokalariei balentria hura lortzeagatik aitortza egin zieten UDAko ordezkariak. Maiatzaren 22ko Ohorezko Erregional Mailako taldearen partiduen atsedenaldia baliatu zuten horretarako. Kirol elkartearen 75. urtemugako ekitaldietako bat izan zen.



**OÑATI**

**59 urteko arutz oñatiar bat hil zen, lan-istripuan**

Ezbeharrak Aramaion gertatu zen, hilaren 12an. Nardeaga kaleko etxe bateko bigarren pisutik erori zen langilea, eskailera batera igota lanean ari zela. Buruan kolpe gogorra jasanda, hurrengo egunean hil zen Gasteizko Santiago ospitalean. Heriotza salatzeko, elkarretaratzea egin zuten Foruen plazan maiatzaren 16an.



**BERGARA**

**Aranzadi Ikastolaren mende erdia ospatu zuen komunitateak**

Maiatzen 28an egin zuten 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusia. San Martin plazan 620 lagun eseri ziren mahaiaren bueltan bazkaltzeko, eta aurretik, *flashmob*-arekin, Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldiarekin eta Usondo parkeko jolasekin gozatzeko aukera izaten zuten adin guztietako herritarrek.





# Gabilondo - Arzregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela




Urte berri on!

**KALEBARREN 5**
**943 76 62 90**
**ANTZUOLA**

## DEBAGOIENA

## 'Eraginez piztu' proposamena

Eskualdean trantsizio energetikoa sustatzeko esku-hartze proposamena da eta Debagoiena 2030 ekimenak aurkeztu zuen, eremu hiritarreko energia eredu eraldatzeko zortzi proiektuekin batera.

## ANTZUOLA

## Ibai Larrea Lasterkaria

Mendi lasterketako Espainiako txapelduna da Unai Larrea 23 urtez azpikoetan. Albaceten jokaturako Trail Running Classic txapelketa irabazi zuen, 1.24.21 eginda.



## ARRASATE


## 50. urteurrena, azokaren bueltan

Bi urteko etenaldiaren ostean, garagardo azoka egin dute aurten Arrasate Rugby Taldekoek. 50 urteko ibilbideari errepasoa egiteko, gainera, erakusketa zabaldu zuten Kulturaten.

## ARRASATE

## Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe Atletak

Axpek urreari eutsi zion Espainiako aire zabaleko txapelketan, 4,45eko saltoarekin. Lehia handiena Ruiz de Azuarekin izan zuen: 4,40ko saltoarekin zilarra jantzi zuen.



## BERGARA

## Ekinez, musika jaialdi arrakastatsua


Euskal Herriko hemezortzi talde eta 4.000 ikusletik gora elkartu ditu Ekinez jaialdiaren lehen edizioak. Bi egun eta ia hogeitau ordu iraun zuten etenik gabeko zuzeneko musikak, DJ saioek eta azoka alternatiboak. Balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek. Etorkezunean errepikatze aukera handiak daudela esan dute.



## ARRASATE

## Arrasate Kirol Sarietan, Mondrate nagusi


Mondrateko senior mailako gizonzkoen taldeak jaso du aurten Arrasateko kirolari onenaren saria. Kirol ibilbide onenaren sari Maria Jose Gilek jaso du, eta aipamen berezi bi izan dira, Arrasateko Udalak horrela erabakita; Ointxe! saskibaloi klubeko senior mailako neskek eta Arrasate Rugby Taldeak jaso dituzte.



## ARAMAIO

## Peru Abarrategi bertsolaria, Arabako txapeldun

Ekainean jokaturako finalean jantzi zuen txapel preziatua aramaioarrak. Egindako lanarekin gustura, txapela jantzi berritan aitortu zuen ez zuela irabaztea espero. Finaleko bertsolari gazteena zen, eta lehenengoz jantzi du txapela, Manex Agirre herrikidearekin batera buruz burukoa jokatu ostean.



## BERGARA

## Lineako hockeyko Espainiako txapelketa

Lineako hockeyko 20 urtez azpiko emakumezkoen Espainiako Txapelketa jokatu zen Bergaran. Burdinola irristaketa klubak antolatua, zortzi talde aritu ziren lehian, eta Valladolideko CPLV nagusitu zen. "Burdinola hockeyaren mapan kokatu dugu", azaldu zuen amaieran Burdinolako jokalarai Ainhoa Salillasek.



## ARRASATE

## 5,6 tona zabor, azkenean, Zapatei kobatik

Besaideko kideak, 40 boluntario inguru eta Euskal Espeleologoen Elkargoko hogeitau lagun -Aloña Mendikoak, tartean- ibili ziren Meatzerreka auzoko kobatik zaborra ateratzen. Lau tona-edo egongo zirela aurreikusten zuten, baina 5,6 izan ziren, azkenean, kobatik ateratakoak. Urteetan pilatutako zaborra zegoen koban.



**ilaia** Urte berri on!!

**ILE APAINDEGIA**

f i

Kalebarren 1, behea ANTZUOLA

943 76 63 33

ilaia83@hotmail.com

**ANTZUOLA****EAJren Debagoieneko Eguna**

Bailarako ordezkari zabala elkartu zen hilaren 12an Antzuolan. Eskualdeko Itziar Alonsok eta Aitor Urrutiak eta GBBko presidente Joseba Egibarrek hartu zuten hitza ekitaldi politikoan.

**ANTZUOLA****Arrolaren ibilbideari omenaldia**

Arrolak 50 urte bete ditu, eta ekainaren 11n ekitaldia izan zen Torresoroan. Jose Ramon Vitoriak Arrolarentzat sortutako martxa estreinatu zuten Alborada txistulari taldeak eta abesbatzak.

**ARAMAIO****Orixol mendi elkarteak, 50 urte**

Garai bateko eta gaur egungo elkartekideak elkartu, eta Orixol mendiko plaka zaharra berriarekin ordezkatu zuten ekainaren 4an. Familia-argazkia eta bazkaria ere egin zituzten. Mendi Astea etorri zen gero.

**ARETXABALETAKO****Xubane Garai Txirrindularia**

Laboral Kutxako ziklistak jantzi zuen txapela, elite eta 23 urtez azpikoen kategorian, Aizarnazabalen jokaturako erlojuaren kontrako Gipuzkoako txapelketan –Gervais memoriale–.

**DEBAGOIENA****Herrietako jaiak, atzera ere normaltasunez**

Bi urteko murrizketen ostean, normaltasunez ospatu dira herrietako jai nagusiak 2022an. Bergarako Pentekosteak izan ziren lehenak. Ondoren etorri ziren Arrasateko sanjuanak, Eskoriatzako sanpedroak, Oñatiko Corpusak eta Elgetako Ferixa Nagusiko jaiak. Elgetan, ganaduzaleen plantoagatik ganadu bako azoka egin zuten.

**OÑATI****Festa eta aldarria Topagune Feministan**

Bilgune Feministaren hogeigarren urteurrena ospatzeko, Topagune Feminista izan zen ekainaren 11n eta 12an Oñatin. *Eztandak dardara gaitzala!* lelopean bat egin zuten ospakizunak eta aldarrikapenak mahai inguru, tailer, azoka eta kontzertu formatuetan. Bilgune Feministaren sarea indartzea ere izan zuen helburu.

**ARRASATE****70 lagunetik gora hamargarren Auzoko Egunean**

Debagoiengan, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasaten daude Auzoko taldeak. Murala egitea, bisita gidatua eta askotariko kulturetako jakiak, dantzak eta jolasak izan ziren Arrasaten ekainaren 12an. Azpimarratu zuten euskal hitzun gehiago behar dituztela egitasmoaren martxa onerako.

**BERGARA****Larramendiko Arnasak, protesta jendetsua**

Valogreen enpresak Bergaran egiteko asmoa duen plantaren kontrako manifestazioa deitu zuen ekainaren 19rako Larramendiko Arnasa plataformak. San Martin plazan irakurritako komunikatuan, enpresaren jardueraren kontrako sei puntu azpimarratu zituzten. Jaurlaritzaren jarrera ere salatu zuten.

**MUJIKA**

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

**HARATEGIA**

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak

**Uste berri on!**

## DEBAGOIENA

**Inoizko tenperatura altuenak**

Uztailaren ere gogor astindu zuen beroak. Hilaren 16an, esaterako, 36 gradu harrapatu zituen termometroak Arrasaten. Hori horrela, herritarrek askotariko teknikak erabili zituzten, freskura apurraren bila.

## ELGETA

**Lorenzo Askasibar eskultorea hil zen**

Uztailaren 17an hil zen, Gasteizen, Lorenzo Askasibar Arana eskultore figuratiboa, 91 urterekin. Elgetarra sortzez, gai, trataera eta material ugari 700 artelan baino gehiago egin zituen haren artista ibilbidean.

## ANTZUOLA

**Ainize Lizarralde 'El**

*El conquistador del Caribe* saioko finalean parez pare ibilita, Jon Ramos getxotzarrarekin partekatu zuen irabazlearen ikurrina Ainize Lizarralde antzuolarrak.



## BERGARA

**Andoni Moñux** Tuba jotzailea

Espainiako Tuba eta Bonbardino Elkarteak antolatuta, uztailaren 6tik 10era kongresua egin zen Malagan. Bergararrak bi emaitza aipagarri lortu zituen: lehen eta bigarren postu bana.



## BERGARA

**Bailarako boxeo izarrak, ringean**

Debagoieneko boxeolari gazte amateurrek ezagutzeko aukera izan zuten uztailaren 2an Bergaran egindako jaialdian. Sorabox taldeak antolatutako borrokaldian, Yassine Bouchaar arrasatearra eta Andoni Kortabarria eta Iosu Zalakain bergararrak egon ziren lehian, eta maila bikaina erakutsi zuten.



## ELGETA

**Ferixa Nagusiko azoka, ganadu barik**

Uztailaren 3an Elgetako Ferixa Nagusiko jaien baitan egin zen azokan ez zen ganadurik egon. Ganaduzaleen iritziz, Gipuzkoako Foru Aldundia "oztopoak" jartzen ari zen ganadua azoketara eramateko. Aldundiak, berriz, esan zuen "arduraz" jokatzeko ari zela. Elgetako Udalak bat egin zuen ganaduzaleen protestarekin.



## OÑATI

**Urbiako fonda San Inazio egunerako zabaldu zuten**

Maiatza ezker itxita egon ostean, San Inazio egunaren bueltan zabaldu zituen ateak Urbiako fondak -uztailak 31-, ugazaba berriekin. Elgetako bikote Peio Bilbao eta Naiara Romatet dira negozioaren arduradun berriak. Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak 25 urterako esleipena eman die.

## ARRASATE

**Elkartasun ikuskizuna Mozambikeren alde**

Mundukide eta Harreman elkar- teek antolatuta, Mozambikeren aldeko elkartasun jaialdia egin zuten uztailaren 20an Monterronen. Ugandatik etorritako Ugandan Sticks dantza taldeak, Ttakun txalaparta taldeak eta Jaiki elkarteko dantzariak parte hartu zuten, eta elkartasun dantzak eta doinuak eskaini zituzten.



## ARRASATE

**Arrakastaz interpretatu zuten 'Carmina Burana'**

Donostiako Orfeoia, Arrasate Musikaleko Bandak, Txorbela Otxoteak eta Goikobalu Abesbatzak kontzertu gogoangarria eskaini zuten uztailaren 2an Arrasaten. Hain zuzen, Uarkape udal pilotalekua lepo bete zen Carl Orffek 1935 eta 1936 artean idatzitako *Carmina Burana* pieza entzuteko.



**BA BEHI-ALDE**  
ERKOP

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**  
Oleta-Aramaio (Araba)  
**Zuzenbide postala**  
44 pk  
20500 Arrasate

*urte berri on!*

Tel.: 945 45 01 00  
bulegoa@behialde.com





**DEBAGOIENA****Baserriko atek zabaldu zituzten**

*Ongi etorri baserrira!* ekimena egin zuten uztailaren 9an eta 10ean Bizkaiko eta Gipuzkoako 30 bat baserritan; tartean, Antzuolako Lamariano Azpikoan eta Aretxabaletako Areantza Etxebarrin.

**ARRASATE****Blues doinuak eta omenaldiak**


Arrasate Blues jaialdiak doinu gozoezin bete zituen herriko txokoak. Era berean, musika irakasle izandako Mertxe Madinabeitia, Miren Gastañares eta Maria Pilar Etxebeste omendu zituzten uztailaren 14an.

**ARAMAIO****Eolikoek kontrako mendi martxa**

Arabako mendietan zentral eolikoak jartzeko proiektuen kontra ibilaldia egin zuten Aramaion uztailaren 23an. Arabako Mendiak Aske plataformak hainbat ekintza egin ditu urtean zehar.

**HANTZUOLA****Ibai Larrea** Korrikalaria

Mendi lasterketen gazte mailako Munduko Txapelketa jokatu zuten uztailaren 24an Andorran. Ibai Larrea antzuolarra bigarren sailkatu zen B kategorian, 20 urtez azpikoetan.

**BERGARA****Mariaren Lagundiko mojej azken agurra**

Bergaratik Irunera joan aurretik agurtu zituzten Mariaren Lagundiko mojak uztailaren 1ean egindako ekitaldian. Agurrekoan egon ziren, besteak beste, ikastetxeko zuzendari Gotzon Iparragirre, Gorka Artola alkatea, Hezkuntza Saileko ordezkari Amaia Urzelai eta ikasleak eta gurasoak.

**ARRASATE****Mondra & Roll jaialdia, arrakastatsu**

Punk eta oi! zaleek nekez ahaztuko dute uztailaren 8an eta 9an Arrasaten izandako musika jaialdia. Bi egunean hamabi talde igo ziren Monterrongo oholtzara. Musikazaleen erantzuna eta antolatzailleen balorazioa ikusita, 2023koa indartsuagoa izango delakoan, bueltan izango da Mondra & Roll.





# GOIZPERREK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE GUZTIOI

... ..

## Urte berri on! 2023



**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen

---

Ihiztadura · Industrial · Bioteknologia



## ARETXABALETA

**Marihuana-plantazioa**

Sute bat itzaltzera joan, eta marihuana barne plantazio bat aurkitu zuen Ertzaintzak Aretxabaletan. Kea arnasteagatik ospitalera eraman behar izan zuten 45 urteko gizon bat, eta artatu ostean, atxilotu egin zuten.

## OÑATI

**Harrizko blokea, lurrera**

Harrizko bloke bat erori zen Sancti Spiritus unibertsitateko fatxadatik. Gargola bat erori zen, eta Ancora kontserbazio-elkarteak adierazi zuen premiazkoa zela diagnostikoa egitea.

## BERGARA

**Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga** Dantzariak

Elgoibarko San Bartolome jaietako dantza askatu txapelketa irabazi zuen Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bikote bergararrak.

## ARRASATE

**Udal lorezainek protesta egin zuten**

Lorezaintza zerbitzuko langileek elkarretaratzea egin zuten Seber Altuben. Udalak azpikontratutako enpresako langileek KPlaren igoera eskatu zuten, eta euren lana duina izatea.



## BERGARA

**Bi presa eraitsi zituzten Deba ibaian; bat, Bergaran**

Europa mailako *Merlin* izeneko proiektuaren barruan, Deba ibaian dauden hainbat presa hasi zen eraisten Gipuzkoako Foru Aldundia. Debagoieneko tartean bi presa eraitsi zituzten; bata, Matxiategin, eta bigarrena, Arrasate eta Elorregi arteko bidegorriko Errekabaltz tunelaren aldamenean.

## ARRASATE

**Urbe auzoko zubia bota zuten abuztuaren 1ean**

Abuztuaren 1ean, hondeamakin Arrasateko Aramaio erreka-rara sartu, eta hainbat mende zituen Urbe auzoko zubia eraitsi zuen. Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoa Gautxori inguruan egiten ari zen urbanizazio proiektuaren baitan bota zuten zubia; haserrea eragin zuen herritarrengan.



## ARETXABALETA

**El Drogas izan zen andramaixetan**

Andramaixak jendetsuak izan ziren. Manolo Zubillagak bota zuen hasierako suzeria. Milagroko musika bandak alaitu zituen kaleak, ohi bezala, eguerdian hasita. Ekitaldi berritzaileak programatu zituzten; karabana formako *escape room*-a, esaterako. Eta Herriko Plazan El Drogas abeslariak eman zuen kontzertua.





URTARRILAREN 7AN  
DENOK BILBORA!



**EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE**

*Unai, Arbe eta Peixoto Arrasaterak!*

**IRATI · TAUPA · BASATI · ILUNTZ**

**JAI ZALE · DAT · ETXOSTE · OSORIK**

**ARRASATE****Unai Axpe** Plater-tiratzaila

Espainiako plater tiroketa txapelketako olinpiar modalitate jokatu zen Valladoliden, eta, bigarren mailan, Kurtzeta-Gain taldeko kide Unai Axpe bedoñarra txapeldunorde gelditu zen.

**DEBAGOIENA****Euskal selekzioen aldeko mendi martxa**

Debagoienara iritsi zen euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko hogeigarren eta azken mendi martxa. Otxandiotik Aramaiora heldu ziren, eta, Elgetan barrena, Bergaran amaitu zuten bosgarren etapa.

**ARETXABALETA****David Agirre** Herritarra

Aretxabaletako tomate barietateak bigarren urtez jarraian jaso zuen Kantabriako Santa Cruz de Bezana herriko lehiaketako saria; uzta, David Agirrek aurkeztuta.

**OÑATI****Omenaldia hiru zuzendari ohiri**

Oñati Abesbatzako zuzendari ohi Patxi Anduaga, Imanol Murua eta Loli Ordoki taldeko ohorezko bazkide izatera pasa ziren, agustindarren elizan egindako omenaldian.

**ARRASATE****Zuhaitzak moztu zituzten ezezagun batzuek**

Kulturate inguruko zazpi zuhaitz eta Garibai kaleko 1. eta 9. atariaren arteko loreontzietan zeuden zuhaitz guztiak zerraz edo aizkoraz moztu zituzten. Horrekin batera, *Ekobulebar*-eko urreztatze automatikoko sisteman ere kalteak eragin zituzten. Arrasateko Udal Gobernuak gaitzetsi egin zuen erasoa.

**OÑATI****Donostiako Hamabostaldia, Arantzazun**

Easo Abesbatzarekin eta Oñatiko Ganbara Abesbatzarekin aritu ziren, besteak beste, Iñaki Salvador eta David de Oliveira pianistak, Zerizan Txistu Taldea, Axular Gero Dantza Taldea, DAB konpainia, Maria Jaunarena eta Lorea Lopez sopranoa, *Haritza eta ihia. Sorozabali omenaldia* izeneko ikuskizunean.

**ELGETA****Txirringulari ohien bazkaria izan zen Elgetan**

Elgetako txirringularitza-zale batzuek antolatuta, eta urteroko ohiturari jarraituz, txirringulari profesional ohien bazkaria egin zuten Elgetan. Txirringulari profesionalak izandako 40 bat lagun batu ziren, eta, harrera egin ostean, bapo bazkaldu zuten Intxorta elkartean.

**ALDEDI**

*Urte berri on!*

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

## BERGARA

**Lapurrak kartzela zaharrearan**

"Kalte ekonomiko larria" eragin zuten lapurrek kartzela zaharrearan, bereziki, negurako jarri nahi zuten berogailu sistemarako dirua eroan baitzuten.

## ARRASATE

**Ur-hoditeriako matxura ikusi zuten**

Arrasate osoa hornitzen duen ur-sare orokorrean matxura handi bat antzeman zuten irail bukaeran. Prentsa agerraldia egin zuten matxuraren berri emateko.

## ARETXABALETA

**Iñaki Urreta** Historialaria

*La casa de los Ojalora en el siglo XVI* liburua argitaratu zuen Iñaki Urreta historialari aretxabaletarrak, lau urtez Ojalora familia aztertzen aritu ostean.



## BERGARA

**Galarta eta Okina omentzekoak**

Miguel Okina eta Julio Galarta margolarien arteko laguntasuna oinarri duen *Bi adiskide margolari* erakusketa antolatatu zuen Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak.



## ARRASATE

**'Hazia' musikala estreinatu zuten Arrasaten**

Irailen estreinatu zuten, Arrasateko Amaia antzokian, Jose Maria Arizmendiarrizaren bizitza eta obraren irakaspenak oinarri dituen musikala. Arizmendiarrizaren Lagunak Elkartek eta Gontzal Mendibil musikariak sortutako ikuskizunak kalitate maila handiko musikaz, dantzaz eta antzerkiaz gozatzeko aukera ematen du.



## ELGETA

**Musikarekin oroitu zuten Josu Azkarate**

2021eko urrian istripuan hildako Josu Azkarate elgetarra oroitzeko musika jaialdi hunkigarria egin zuten Elgetan. Modu batean edo bestean Azkaraterekin ibilitako taldeekin osatu zuten kartela antolatzaileek, eta aurreikusi bezain jendetsua izan zen, 1.800 lagunetik gora elkartu baitziren bertan.



## BERGARA

**Erakusketa, Ipintza Institutuaren 50. urteurrena ospatzeko**

50. urteurreneko ospakizunei ekin zieten Aroztegi Aretoan zabaldu-tako erakusketa baten bitartez Ipintza Institutuan. Erakusketa baliatu zuten institutuaren mende-erdiko historia batu eta ezagutzera emateko. Ipintzako komunitatearen ordezkariak zabalaz gain, hainbat herritar ere joan ziren inauguraziora.

## OÑATI

**Araozko ostatua ireki zuten, nesken eskola izandako eraikinean**

Irailaren 22an zabaldu zuten Araozko ostatua, eta auzotarrekin partekatu zuten poza irekiera ekitaldian. Taberna, 40 bat lagunendako jatetxea eta hiru apartamentu ditu erabilgarri garai baten nesken eskola izandakoak; apartamentu horietako bat, ego-kitua. Itziar Mondragon Azkarrak kudeatuko du zerbitzua.



## ARRASATE

**Kulturolara lekualdatu zuten Udal Euskaltegia**

40 urtez Arimazubi plazan hasitako bideak Kulturolan egingo ditu hurrengo urratsak; izan ere, horra aldatu zuten irailen euskaltegia. Egoitza berriak hainbat areto eta espazio ditu: hamaika ikasgela, irakasle gela bat, liburutegia ordenagailuarekin, aretoa, sukaldea eta sei tutoretza gela.



**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**BERGARA**  
aroztegia@ugarte-aroztegia.com



## ARRASATE

**Lorezainak eta Prezero enpresa, ados**

70 eguneko grebaren ondoren, Arrasateko lorezainak eta Prezero enpresak lan akordioa sinatu zuten, eta "Arrasateko lorezaintza zerbitzuan lan egiten duten langileen lan-baldintzak duintzea lortu".

## OÑATI

**Joseba Azkarate** Kiroalaria

Lehen triatloia burutu zuen Joseba Azkaratek. Modalitate egokituari, 750 metro igerian, 20 kilometro handbikean eta bost kilometro egin zituen aulkian, eta Zumaiako helmugara iritsi zen.



## ARETXABALETA

**Zunzunegi eta Urrutia irabazle**

Aretxabaletako Ikazkin Traileko lehenengo edizioako irabazle izan ziren Aitor Zunzunegi legorretarra eta Ainara Urrutia aretxabaletarra. Irteera puntuan 126 mendi lasterkari batu ziren.

## BERGARA

**Miguel Lazpiur** Enpresaria

Miguel Lazpiur ekintzaile bergararra omendu zuten Miguel Altuna Lanbide Heziketan, gazteen artean ekintzaitasuna sustatzeko antolatutako jardunaldietan.



## ARAMAIO

**Txotx!, bederatzi etxetan egindako sagardoarekin**

Tradizio handiko jaia da Aramaion Sagardo Eguna. Herrian sagarzale eta sagardogile asko dago, eta horietatik bederatzik ekarri dute aurten etxean egindako sagardoa herritarrek dastatzeko. Sagardoa probatzearekin batera taloak jateko aukerarik ez zuten galdu aramaioarrek festa egunean.



## BERGARA

**Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, Bergaran**

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak Bergarako Seminarixoa aretoan egin zuen ikasturte berriaren hasiera ekitaldia. Aranzadi ikastolaren 50. urteurrena dela eta aukeratu zuten Bergara, eta ekitaldian hezkuntza zein politika esparruetako hainbat ordezkari izan ziren.



## ARRASATE

**Borobila izan zen Aurrera Bolie Eguna**

Belaunaldi askotariko jendea batu zuen irailean egin zen Aurrera Bolie Eguna. 1960ko hamarkadan "Euskal Herriaren alde lanean aritu zirenen balioak gaurkotu" eta aurrera begira jartzea izan zen helburua. Hitzaldiak egin zituzten eta kontzertuez gozatzeko aukera ere izan zen.

## ARRASATE

**1936ko gerran hildakoak gogoan eta testigantzak liburuan**

Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Arrasateko Udalak antolatuta, ekitaldi bikoitza egin zuten, tropa frankistak sartu zirenetik 86 urte bete zirela eta. Lore eskaintza egin eta *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956, Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa* liburuaren bigarren argitalpenaren aurkeztu zuten.



## OÑATI

**Maria Cruickshank, 'Black is Beltza II'-ko protagonista**

Maria Cruickshank aktorea (Oñati, 1989) Zinemaldiko alfonbra gorritik igaro zen irailean. Izan ere, jaialdi hartan proiektatu zen lehenengo Fermin Muguruzaren *Black is Beltza II: Ainhoa* pelikula. Oñatiarrak ahotza jarri dio Muguruzaren filmeko Ainhoa izeneko protagonistari.



Julen Uribeetxeberria Txintxurreta  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Urte  
berri  
on!

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI • Tel.: 943 78 01 54 / 699 34 89 47



## BERGARA

**Rafael Amasorrain**

Kutxa Banku Fundazioko lehendakari izendatu zuten, urrian berritu zen instituzioko patronatuak hala erabakita. Carlos Tamayoren lekukoa hartu zuen, eta lau urteko ibilbideari ekin zion.



## ARRASATE

**Puntaik Punta jaialdia**

Urriaren 14tik 16ra bitartean egin zuten, Arrasaten, Puntaik Punta jaialdia. Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, jarduerak Arrasaten eta bailarako gainerako herrietan egin zituzten.

## BERGARA

**Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga** Dantzariak

Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergarrek irabazi zuten Euskal Herriko 46. Dantza Txapelketa, urriaren 22an, Seguran. Guztira, bederatzik bikote lehiatu ziren.



## ARRASATE

**Internazionalista Eguna Arrasaten**

Askapena Euskal Erakunde Internazionalistak 35 bete ditu aurten; bada, urriaren 22an, Internazionalista Eguna ospatu zuten. Pakito Arriaranen oroitarrian hasi zuten eguna.



## BERGARA

**'África' musikala estreinatu zuten**

Urriaren 1ean estreinatu zuten *África, las dos orillas* musikala, Bergarako Seminarixoa aretoan. Donato Goyenechek konposatutako musika du oinarri lanak, eta zuzendu, aldiz, Jose Miguel Laskurainek zuzendu du. Bi ordu pasatxo irauten du lanak; ikusleak gustura irten ziren estreinalditik.



## BERGARA

**Mendiak "industrializatzearen" aurka**

Gipuzkoako Mendiak Aske plataformak deituta, "mendiak industrializatzeko asmoen" aurka agerraldia egin zuten urriaren 12an Elosuan. "Gipuzkoarako aurkeztu diren proiektu eolikoaren lehentasuna ez da Gipuzkoako herritarron beharrak eta ongizatea bermatzea, baizik eta asetzea enpresa handiek dituzten nahiak", esan zuten.



## ARRASATE

**Zulatutako hodi batek eragin zuen ur-sareko ihesa Arrasaten**

Arrasateko ur-sarean 72.000 metro kubikoko ihesa eragin zuen zulatutako hodi zatia erakutsi zuten prentsaurrekoan, urriaren 26an. Lur azpian sei bat metrora zegoen hodian gertatu zen matxura, irail amaieran. Ur-galerak 63.000 euroko gastua izan zuen eta lanetan egindako, ingurabi-deak, aldiz, 92.000 eurokoa.

## BERGARA

**Lanean euskara sustatzeko, 'Harixa' hitzarmena**

Euskara lan esparruan sustatzeko *Harixa* hitzarmena sinatu zuten urriaren 25ean Bergarako 37 enpresak, taldek eta eragilek. Miguel Altuna Lanbide Heziketa Institutuan batu ziren eragile guztiak hitzarmena sinatzeko. Hitzarmenaren bitartez hainbat konpromiso hartu zituzten enpresek eta eragileek.



## ARRASATE

**'Zalantzari leiho bat irekiz', mende erdia ospatu zuen Emun-ek**

Urriaren 6an egin zuten Emun kooperatibak 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusia, Arrasateko Iturripe kiroldegian. Eraldaketarekiko konpromisoa diharduten enpresen eta erakundearen alboan ospatu zuten urteurrena, esperientziak partekatzeke balio izan zuen topaketa eta ekitaldi ikusgarriekin.





**ION  
ZERBITZUAK**

**Urte  
berri on!!!**

**Mantentze lan integralak**

**Konponketa txikiak eta handiak**

**24 orduko zerbitzua**

**658 99 59 12**



## BERGARA

**Berener kooperatiba aurkeztu zuten**

Berener proiektua aurkeztu zuen Bergarako energia berriztagarrien kooperatibak urriaren 25ean. Hain zuzen, irabazi asmorik gabeko kooperatiba izango da, integrala eta erabiltzailea.



## LEINTZ GATZAGA

**Aspertzeko aukera barik ospatu zuten Gatzaren Eguna**

Urriaren 23an ospatu zuten Gatzaren Eguna. Seigarren edizioa izan zen, eta arrakastaz ospatu zuten, gainera. Jende asko joan zen pilotalekuan egindako azoka ekologikora eta Gatzaren Museora egin zituzten bisita gidatuetara. Azokan denetariko produktuak erosteko aukera izan zuten herritarrek.

## ELGETA

**Anfibioendako urmaela egin zuten**

Anfibioendako urmaela egin zuten eskolako umeez, irakasleek eta gurasoek, Elgetako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek gidatuta. Elgetako biodibertsitatea aberastuko duen urmaela izango da.

## DEBAGOIENA

**Miren Elgarresta**

Emakundeko zuzendaria

Urri hasieran izendatu zuten Miren Elgarresta Emakundeko zuzendari. Oñatin bizi den zumarragarrak Izaskun Landaida ordezkatu zuten aipatutako karguan.



## BERGARA

**Yune Nogueiras eta Mikel Laskurain**

Aktoreak

Euskal Aktoreen Batasunak *Besarkada* sariak banatu zituen Donostian urriaren 11n. Yune Nogueiras eta Mikel Laskurain bergararrak saritu zituzten, besteak beste.



## ARRASATE

**Digilab abangoardiako laborategia Ikerlan-en**

Ikerlanek Digilab abangoardiako laborategia inauguratu zuen urriaren 20an; Eusko Jaurlaritzako Azpitek programaren finantzaketari esker sortu dute 2.000 metro karratuko azalera duen eta 1,5 milioi euroko inbertsioa izan duen laborategia. Inaugurazioan Jaurlaritzako eta Aldundiko ordezkariak izan ziren.



## DEBAGOIENA

**Auzolanean garbitu zuten Deba ibaia**

Deba ibaia eta haren adarrak auzolanean garbitu zituzten urriaren 15ean bailaran eta 500 lagun baino gehiago elkartu ziren deialdian. Bergarako erreka garbiketaren hamargarren aldia izan da aurtengo; bada, hori aitzakia hartuta zabaldu zuten deialdia bailara osora. Goienak, gainera, ikus-entzunezko berezia sortu zuten.

## BERGARA

**Danbaka musika lehiaketa bueltan, 12 urteren ondoren**

Goienak antolatzen duen Danbaka Musika Lehiaketaren bosgarren aldia hasi zuten urriaren 14an, Bergarako Seminarixoa aretoan. 12 urteko geldialdiaren ondoren, hogeitaz talde eta musikari lehiatu dira; Lemak, Kiimak, The Clayton eta Jasan taldeak izan ziren lehenengo kontzertuko protagonistak.



## DEBAGOIENA

**10. urteurrena ospatu zuten Goienagusik**

2021ean bete zituen 10 urte Goienagusik; baina ezin izan zuten ospatu, aurtengo urriaren 26an egin zuten ekitaldi nagusia. Orain arte lehendakari izandakoak omendu zituzten: Mañoli Ezenarro, Jose Mari Eraña, Bixente Zugasti, Begoña Markaide, Belen Arrondo, Matilde Sainz eta Lidia Fernandez de Luko.

Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA**

*Urte berri on!*

**Hemen garbiketak**

Intxaurtxueta 16, behea  
ESKORIATZA  
T.- 943 71 48 45  
www.hemen-garbiketak.com  
hemen@hemen-garbiketak.com

## OÑATI

**Lehendakaria ArantzazuLaben**

Iñigo Urkullu lehendakariak Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategia bisitatu zuen azaroaren 30ean. Bertan izan ziren Oñatiko alkate Izaro Elorza eta zentroko zuzendari Naiara Goia ere.

## ARETXABALETA

**Ikastetxe-Klik proiektua**

Debagoiena 2030ek bultzatuta, udalen babesarekin eta ekoON enpresaren laguntzarekin, bailarako hamar ikastetxetan energia eta ur kontsumoak murrizteko egitasmoa aurkeztu zuten hilaren 22an.

## OÑATI

**Bosgarren Beratu jaialdia**

Azaroaren 14tik 16ra, lau kultur emanaldi zabal eta arrakastatsu *egosi* ziren Beratu jaialdiaren eskutik Antixena gaztetxean, Eltzia tabernan, gaztelekuan eta Lazarragako lorategian.

## ARRASATE

**Endika Donnay** Korrikalaria

Krosetan aritutakoak bere lehen maratoian parte hartu zuen Donostian azaroaren 27an, eta Gipuzkoako txapeldun izan zen. 2.28.59ko denbora behar izan zuen 42 kilometroak burutzeko.



## DEBAGOIENA

**Elikagai Bankuaren bilketak, pandemia aurreko erantzuna**

Begarako Elikagai Bankuko boluntarioak kezkatuta zeuden neguaren atariko bilketaren aurretik, biltegiko apalak nahiko hutsik zeudelako eta gero eta jende gehiagok duelako zerbitzuaren premia. Bada, 2019ko kopurura hurbildu ziren hileko azken asteburuan jasotako ekarpenak: "Pozteko modukoa".



## BERGARA

**Ortu komunitarioak, martxan**

San Joxepen kokatuta dauden baratze komunitarioen 75 lursail onuradunen eskutara pasa ziren azaroa hastearrekin bat. Erabil-tzaile berriek lurra modu ekologikoan lantzeko ikastaroa jaso zuten Furgobaratza zerbitzu ibiltariaren eskutik. Konstanteak izatea eta landareei ur askorik ez botatzea gomendatu zieten.



## DEBAGOIENA

**Indarkeria matxistaren aurkako aldarriak**

Urtero bezala, azaroaren 25ean Debagoieneko kaleak aldarrikapen feministaz bete ziren. Instituzioen indarkeria amaitzeko beharra nabarmendu zuten emakumeek; sistema judiziala, polizia, hezkuntza sistema eta legedia aldatzea eskatu zuten, eta 2022an indarkeria matxista kasuek gora egin dutela ahaztu gabe.



## OÑATI

**Joseba Arregi, berriz ere espetxera**

Otsailaren 23an ezarri zioten hirugarren gradua 76 urteko oñatiarrari, kartzelan 29 urte egin ostean. Azaroaren 22an, Martuteneko espetxera itzuli behar izan zuen, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren helegitea tarteko. Hori salatzeko elkarretaratzea egin zuten Oñatin, Sare Herritarrak elkarteak deituta, Udalaren babes eta guzti.

## BERGARA

**Txotxongilo Mostraren itzulera indarberritua**

Bi urtean behin egiten den Nazioarteko Txotxongilo Mostrak 16. edizioa bizi izan zuen hileko lehen asteburuan Bergaran. Taun Taun taldeak haurren eta helduen irribarrea piztu zuen, udaletxeko osoko bilkuren aretoa material birziklatuz jositako instalazio bihurtuta eta kalea ikuskizun eta antzerkiz girotuta.



**ekidegroup**  
pertsonek ardatz

zorionak eta urte berri on!

Ekide S.L. · Telleria Kalea 2, Arrasate · www.ekide.es · 943712543



**ARETXABALETA**

**Ainara Urrutia** Korrikalaria



EMFk antolatzen duen Euskal Kopa eskuratu zuen hilaren 13an Urduñan, probako bosgarren eta azken lasterketan. Egun hartan emakumezko azkarrena izan zen, gainera.

**BERGARA**

**Antxintxika lasterketa**

Soraluzetik Bergararainoko hamar kilometroko proban ia 400 parte hartzaile aritu ziren azaroaren 5ean, handbike, patin eta kros modalitateetan. Probak itzulera arrakastatsua izan zuen, hortaz.

**ARRASATE**


**Herriko tronboi-joleekin solasaldia**

Arrasate Musikalen 50. urtemugaren harira, Unai Urretxok, Alberto Urretxok eta Mikel Arkauzek musika eskolan hasi eta musikari profesional bilakatu arteko anekdotak kontatu zituzten Kulturaten hilaren 11n.

**DEBAGOIENA**

**Mondragon Taldearen batzar orokorra**

Azaroaren 15eko bilkuran Iñigo Uzin presidentek esan zuen Mondragon Taldea dela Oronaren eta Ulmaren "espazio naturala". Bi kooperatibetako ordezkariak ez zen aurkeztu hitzorduan.



**LEINTZ GATZAGA**

**Sanmilixanen bueltako artisau azoka frontoian**

Azaroaren 13an ospatu zuten San Milixan eguna Leintz Gatzagan; tokiko ekoizleen hamabost postuz osatutako azokara jende ugari joan zen; asko, Gatz Bidea oinez eginda. Sorginak emakume taldearen taloekin bete zuten sabela, eta elikagaiak, bitxiak, saskiak, larruak, poltsak eta arropa erosi ahal izan zituzten.



**ARRASATE**

**Agurtzane Arregiri udal aitortza**

Agurtzane Arregi Letamendiren etxeok Arrasateko Udalaren aitortza jaso zuten Memoriaren Egunean, azaroak 10. Udal ordezkariak motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketen biktima gisa aitortu zuten Arregi; izan ere, AAA eskuin muturreko taldeak erail zuen 1978ko uztailearen 2an Miarritzen.



**ARAMAIO**

**Statkraft enpresa eolikoaren azalpenak**

Aramaio eta Eskoriatza artean eraikitzeko asmoa duten Itsaraz proiektu eolikoaren nondik norakoak azaldu zituzten Statkraft enpresa norvegiarreko ordezkariak kultura etxean hilaren 16an. Bertaratutakoek zalantzan jarri zituzten haien argudioak, eta herritarrek erabakitzeko ahalmenik izango ote zuten galdegin zieten.

**DEBAGOIENA**

**10.000 debagoiendar inguru Euskaraldian parte hartzen**

Azaroaren 18an abiatu zen hizkuntza ohiturak aldatzeko hirugarren ariketa soziala. Hamalau egunez aritu ziren partaideak, *ahobizi* edo *belarriprest* txapa soinean, euskarari behar duen espazioa bermatzen, eta herri batzordeen bitartez ekitaldi ugari egin ziren. Arigune eta erronketan jarri zuten azpimarra.



## OÑATI

**Eliza-erakinak liburuan jasota**

Artixa kultur elkarteak liburu baten jaso zituen herriko elizak, ermitak, komentuak eta santutxoak. 74 artikulua daude lanean, eta 452 argazki; horietatik asko berriak, baina baita artxiboetan aurkitutakoak ere.

## OÑATI

**'Mari' filma estreinatu zuten**

Gaztetxe mugimenduak Oñatian aurten 40 urte eta Antixenak abenduan hamar urte beteta, urteurren biei begira egindako fikziozko filma proiektatu zuten Antixenean: *Ixilik nahi gaituztenean, Mari*.

## BERGARA

**Beñat Labaien** Entrenatzailea

Beñat Labaien Realeko lehen taldeko analista bergararra kluba utzi eta Japoniara joan zen, Tokushima talde japoniarreko entrenatzaile aritzeko.



## ESKORIATZA

**Gizabidea eta Arizmendi: hitzarmena**

Gizabidea Fundazioak eta Arizmendi Ikastolak hitzarmena sinatu zuten. Gizabideak 1,5 milioi euroko laguntza eman zion Arizmendiri Torrebaso 2030 hezkuntza proiektuan sakontzen jarraitzeko.



## OÑATI

**Gomiztegi Artzain Eskolak 25 urte bete zituen**


Gomiztegiren 25. urteurreneko ekitaldia Arantzazun egin zuten abenduaren 17an. Iñigo Urkullu lehendakaria Gandiagan izan zen, Oñatiko alkate Izaro Elorza, diputatu nagusi Markel Olano eta Arantza Tapia sailburua, Joxe Mari Arregi frantziskotarra eta Artzain Eskolako langileak eta arduradunak, besteak beste.



## ARRASATE

**Santamasetan ohiko azoka bueltatu da**

Ganadu azokako animaliek ikusmina sortu zuten, eta, bereziki, Mikel Velasco artzain arrasatearrak egindako artile-mozketa erakustaldiak batu zuen jendea. *Txerrinsky* txerria ikustera ere joan ziren, baina, horrez gainera, artisauen lanbidea ezagutzeko aukera izan zen: barazki azoka, dantzak, taloa jateko ilarak...



## ARRASATE

**Jostailu-bilketa egin zuten Gurutze Gorriko boluntarioek**

Egoera zaugarrian dauden bailarako umeendako jostailuak batu zituen aurten ere Gurutze Gorriak Arrasateko Eroski supermerkatuan. Debagoieneko 250 umerendako baino gehiagorendako jostailuak batzen ibili ostean, jostailuen banaketa abenduaren 21ean egin zuten Elorregiko egoztan.

## BERGARA

**Agorrosin futbol zelai berria estreinatu zuten**


Lau hilabeteko obren ostean, Agorrosin berrituan jokatu zuen Bergarako Gizonezkoen Erregional Ohorezko Mailako futbol taldeak Zumaiako taldearen aurka. Esperotako estreinaldian ezin izan zuten punturik batu bergararrek zelai berri, luzeagoa eta zabalagoan; izan ere, 1-3 galdu zuten norgehiagoka.



## BERGARA

**'Izotz ondoko eguzki' erakusketa inauguratu zuten**

*Izotz ondoko eguzki* Bergarako euskararen historia soziala ezagutzera ematen duen erakusketa ireki zuten Aroztegi aretoan. Espainiako gerra ondorenetik trantsiziara arte euskarak Bergaran izan duen bilakaera aztertzen da erakusketan.



**OÑATI**

**Txantxiku ikastolaren inaugurazioa**

Txantxiku Ikastolak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eraikin eraberrituaren aurkezpen ofiziala egin zuen abenduaren 12an. Espazio berriak, zabalak eta argitsuak batzen dituen eraikin bilakatu da.

**BERGARA**

**Patxi Larrañaga** Ikertzailea

*Bergarako errotak. Molinos de Bergara* liburuaren aurkezpena egin zuen abenduaren 20an Patxi Larrañaga ikertzaile bergararrak Seminarixoa aretoan.



**ARRASATE Agustin Markaide**

Eroskiko presidente ohia


Eroskin eginiko lanarengatik aitortu zuten arrasatearraren lana, banaketa sektorea lehen sektorearen garapenerako "giltzarria" dela adierazita. Hala, Gonzalo Nardiz saria jaso zuen.



**ARRASATE**

**Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa**



Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkartearen eskutik, puntako akordeoilariak izan ziren 42. Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketan, eta Kresimir Lulic kroaziarra izan zen lehiaketako txapelduna.



**DEBAGOIENA**

**Ulma eta Orona Mondragonetik irten ziren**

Ulma Taldeko eta Oronako bazkideek ezohiko batzar nagusietan erabaki zuten Mondragon Korporaziotik irtetea. Abenduaren 16an bilera egin zuen Ulma Taldeak Illunben, Donostian, eta, Ulmak emandako informazioaren arabera, irtetearen alde egin zuten bozkatutako lan-bazkideen %80,52k.



**DEBAGOIENA**

**Eskualdeko sortzaileen uzta Durangoko Azokan**

Idazleak, musikariak, aktoreak, zinemagileak... Asko eta askotarikoak izan ziren modu batera edo bestera 57. Durangoko Azokan parte hartu zuten ibarreko sortzaileak. Asun Agiriano, John Andueza, Marisol Andrade, Ines Osinaga, Andoni Urzelai, Jon Sarasua eta Kaitin Allende, besteak beste.

**BERGARA**

**Zubieta kaleko obrak amaitu zituzten eta ireki egin zutene**

Zubieta kale berritua trafikarako ireki zuten abenduaren 21ean, urte osoan lanarengatik itxita egon ostean. Zubieta kaleko lehen bi faseak amaituta, hirugarren faseari urtarrilaren 9an ekingo diote; hain zuzen, Masterreka kaleko lanak izango dira egingo dituztenak. Lan horiek sei hilabete irautea dago aurreikusita.



**ANTZUOLA**

**Arrola Mendi Elkarteak 50 urte bete ditu**

Antzuolako Arrola Mendizale Elkarteak mahai-ingurua egin zuen, eta bertan elkartu zituen bailarako beste bost mendi taldeetako ordezkariak –Aramaio, Arrasate, Bergara, Elgeta, eta Oñati–, baita Gipuzkoako Mendi Federazioko kide bat ere. Aurrera begirako erronkak izan zituzten hizpide, besteak beste.



zeta**bi**  
arkitektura  
urte berri on  
g a b o n  
zoriontsuak

20 23

arkitektura eta diseinua zure esku

1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15.

\*lote puntuak

## Miren Elgarresta Larrabide

### Emakundeko zuzendari berria

**U**rrian hartu zuen kargu berria Elgarrestak (Zumarraga, 1965). Ordura arte, eta bi agintaldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako zuzendaria izan da. Hamar urtez Emakundeko zuzendari izandako Izaskun Landaideri hartu zion lekukoa, eta erronka berriari ilusioz baina arduraz ekin ziola aitortu zuen, kargua hartu berritan. "Aro berri honetan gazteekiko hurbilketak zabalagoa beharko du", esan zuen, eta Eusko Legebiltzarrak martxoaren 3an onartutako Berdintasun Legeak berdintasun politiketan aurrera egiteko bide berriak irekitzen dituela gaineratu. 35 urte dira Emakunde sortu zela. Urte hauetan guztietan berdintasun politiketan egindako bidea azpimarratu zuen Elgarrestak. Ekipo teknikoari ematen dio balioa hark: "Egia da gauza asko ditugula oraindik ere egiteko, baina ibilbidea emankorra izan da". Sentsibilizazio esparruari heldzea estrategikoa da, haren ustez.



## Mauricio Arregui Aulestiarte

### Gipuzkoako Bazkundeko buru

**A**zaroaren 15ean izendatu zuten bergararra Gipuzkoako Bazkundeko lehendakari. Erakundeak Gipuzkoako 75.000 enpresa, negozio eta saltoki baino gehiagoren interesak defendatzen ditu. Kargua "erantzukizun eta errespetu handiz" hartu duela adierazi zuen, eta haren eginkizunak "lankidetzeta, kohesio eta zerbitzu espirituarekin beteko dituela". Arregui Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da, EHU. Horrekin batera, formakuntza jaso du AEBetako Missouri MBA Avila unibertsitatean eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan. Ormak Taldeko kontseilari delegatua da.

#### Agustin Markaidek, Gonzalo Nardiz saria

Agustin Markaidek (Arrasate, 1957) Gonzalo Nardiz saria jaso du abenduan. Eroski taldean elikagaien banaketa-sektorean egindako "lan garrantzitsuagatik" eman diote, "Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren sektoreko balio-katea berritzen eta garatzen, eta bertako produktuak babesten erakutsitako inplikazioagatik".



**Murillo Garajea**  
Auto konponketak orokorrean

*Ongi etorri 2023*

Leizeaga 4 - BERGARA  
Tel.: 943 76 13 84

**O**sak (Oñati, 2022) 2021eko abuztuan jokatu zuen lehen mendi lasterketa. Gero etorri ziren Aloñako Igoerako bi garaipenak, Lugon irabazitako junior mailako Espainiako txapelketa, Montblanceko 23 kilometroko lasterketako garaipena eta duela bi hilabete Golden Trail Series-etako finalean Madeiran egindako balentria. Salomon etxean azkar ibili dira oñatiarra fitxatzen.


#### Beste izen batzuk

Ainara Urrutia lasterkariak Euskal Kopa irabazi du, Miren Apraiz Euskadiko txapeldun izan da distantzia motzeko duatloian, Mikel Ugarte Espainiako txapeldunorde izan da ironmanean eta Mikel Mujikak sekulako lasterketa egin du Hawaiin. Ainhoa Salillasek Espainiako Liga eta Espainiako Kopa irabazi ditu izotz hockeyan, eta tetraplegia duen Joseba Azkaratek Zumaiako triatloia egin du; munduan ez dago halako beste kasurik.



## Malen Osa Ansa

### Etorkizun handiko lasterkaria



## Yune Nogueiras

### 'Intimidad' telesaileko 'Leire'

**T**xintxua Films-ek Netflix-endako egindako *Intimidad* telesailak mundu mailako arrakasta lortu du. Ekainean estreinatu zuten eta telesaileko protagonistetako baten rola egin du Yune Nogueiras aktore bergararrak *-Leire-*. Telesaila plataformako ikusienetakoa izan da ingelesezkoak ez diren artean, eta *Akelarre* filmaren ondotik proiektiorik handiena eman dion lana da. Euskal aktoreak saritzen dituen Besarkada saria ere jaso du Nogueirasek 2022an, Mikel Laskurain herrikidearekin batera.

#### Bertsolaritza

Badira 2022an nabarmendu diren beste izen propio batzuk. Arabako Bertsolari Txapelketako irabazlea izan da aurten Peru Abarrategi aramaioarra, eta lehenengoz hartu du parte Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusian. Aldi berean, Oihana eta Haizea Arana ahizpak albiste izan dira, *Erre, aldarri bat bertsoz antzezlan* dela eta.

*Zutaz arduratzen gara*

Audi Q2      VW Caddy      VW T-Roc      Skoda Kodiaq      Seat Arona

*Urte berri on!*

**UDALAITZ S.L.**  
Gipuzkoa etorbidea 36  
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71  
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

# Ukrainan lehertutakoari antza ematen, ziurtasun baino zalantza gehiago

Amaitu ez den gatazka hori izan da gizarte gaien artean ardura gehien piztu duena, albo-kalteak gure etxeetaraino iritsi dira eta. Gertuago ere pasa dira hainbat kontu garrantzitsu, ondoko lerroetan xehatuak.



AINHOA LARRAÑAGA / HUHEZIKO IRAKASLEA

## Egokorkeriarri erantzuteko premia

Erpin desberdin ugari dituen paradigma aldaketan sakondu du 2022ak, Ainhoa Larrañagaren hitzetan. Pobrezia, pandemiak, buru osasuna kaltetzen duten gaitzak eta gazteen eta ez hain gazteen prekarietatea "krisi sistemikoaren barruan" kokatzen ditu. Herritarrei bereziki "bizitzaren garestitzeak" eragin diela aipatu du: "Hipotekak gora, gasolinaren prezioa, eguneroko jakien garestitzea, prekarietatea, etxegabetzeak, indarkeria matxista, osasun eta hezkuntzaren gainbehera... Norbanakoaren zaugarritasuna gero eta agerikoagoa da". Horren aurrean, besteekiko enpatiarik eza edo "egokorkeria" gailentzen dela dio: "Sistemak lortu du, beldurraren bidez, indibidualismoak gaina hartzea eta borrokarako grina zapuztea".

Gazteengan, zehazki Mugimendu Sozialistako kideengan, jarri du esperantza: "Lan prekarietatea, etorkinei laguntza eskaintzea, emakumeen auzia, etxegabetzeak... hartu dituzte jomuga gisa, eta, marko intelektual oso landu bat izateaz gain, kalean dihardute, zapalduenen alde lanean". Eredugarria iruditzen zaio egiten ari diren lan militante eta politikoa, "dauzkaten oztopo, beto, pertsekuzio polizial eta mehatxu larrien aurrean kikildu barik".



IÑAKI GALDOS / ANALISTA POLITIKOA

## Betiko gaiak eta berehalako lanketak

Urteak "askorako" eman duela dio Iñaki Galdosek, eta hiru mugarri azpimarratu ditu: Ukrainako gerra, Hezkuntza Legea eta Mondragon afera. "Hirurak dira amaitu gabeko kontuak eta hirurek izango dute jarraipena, batek daki noiz arte, baina ezin ukatu gure artean hizpide izan direla azken hilabeteetan, ez beti modu adiskidetsuan, guztia aitortzen hasita".

Aipatutako mugarrietan sakonduta, Zaharrak berri esaerari egin dio erreferentzia: "Mundu zabaleko gerrak, kooperatiben munduko xextrak eta hezkuntza sistemaren inguruko eztabaidak aspaldikoak dira benetan, ia betikotuak". Hala ere, bada zerbait "zeharo" aldatu dena: "Gaiei aurre egiteko eredia". Haren hitzetan: "Berehalakotasunaren diktaduran bizi garela diote batzuek, ziurgabetasun iraunkorra dela gurea, eta, zentzu horretan, ez dut garbi hobera goazen".

Informazio eta datuen etengabeko jariora "printzipioz" txarra ez dela adierazi du: "Baina gero eta nekezagoa egiten zaigu epe luzerako ibilbideak adostea, gaien konplexutasunari aurre egitea; neurri batean, faltan igartzen ditut garai bateko begirada luzeak eta lidergo sendoak".



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibargarai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Urte berri on!



BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97



MAIALEN ARRATIBEL / EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

## Egiteko moduak birpentsatzea

Urteberri egunean jarri du arreta Arratibelek: "Bete-betea geunden pandemian sartuta; askok, halaberrez, etxealdian hasi genuen 2022a, COVID-19ak noiz arte iraungo zuen galdezka". Lasaitzera egin zuen egoerak, eta orduan galdutakoak berreskuratzeko irrika sortu zen jendartean: "Galdutako parrandak, bazkariak, afariak, kontzertuak, festak, noranahiko eta nolana hiko planak... Etxean ezin gelditze bat, eta buruko osasuna bazterrean utzi izanaren sintoma garbia". Era berean, aurtengo urteak buru osasunaren gaia erdigunera ekarri duela nabarmendu du, "eta hori bada abiapuntu bat korapiloak askatzen hasteko".

Prezioen "neurrigabeko igoerak" agintarien ezinbesteko esku hartzea ekarri duela arrazoitu du: "Batez ere, erregaiari eta garraio publikoari ezarritako deskontuetan igarri duguna". Krisi globalaren beste irakasgai bat egiteko moduak "berehala eta errotik" aldatu beharra izan da: "Adibideetako bat da parke eolikoena; hemen etxean jarri nahi ditu Statkfrat konpainiak haize-errotak, eta, proiektuak zehaztasuna falta badu ere oraindik, badirudi aurrera ateratzeko aldeko indarrak izango dituela. Aurkako ahotsak altxatuko dira; beraz, gaiak piztuko du, behintzat, eztabaida".



Ukrainako gerran suntsitutako eraikin bat.



JUANJO SAN MIGUEL / NAZIOARTEKO GAJETAN ADITUA

## Bizimodu eroaren amaiera?

2022an mundua "egun batetik bestera" aldatu dela azaldu du San Miguelek, Ukrainako gerra izanik abiapuntua: "Batziek diote iraganera bueltatu garela, mundua bitan zatituta zegoeneko denboretara, zuzena eta okerra argi eta garbi adierazita zeuden garaietara; beste batziek diote, aldiz, etorkizuna berrantolatze bidea adieraziko digula Europa erdian lehertu zaigun gerra honek; eta guztiek aitortzen digute oraina finkatzea ezinezkoa dela, ziurgabetasuna eta ezjakintasuna handiegiak direlako". Haren esanetan, hango irudiak ikustean "geure burua antzeman genezake ispiluaren bestaldean". Hala ere, oraindik sinistea kosta egiten zaigula aipatu du, horrek "gure bizimodu eroaren amaiera" adierazi lezakeelako. Argi dauka etorkizuna ez dela orain artekoaren berdina izango: "Kontinente aurreratua, aberatsena eta demokratikoa omen zen Europa ohartu da urrutikoen eta etsaien menpe dagoela, kanpoko erregairik gabe alferrikakoa dela gure garapena, eta Ameriketako Estatu Batuen laguntzarik gabe ahula dela gure babes".

Datorren urtera begira, aldaketa gehienak "zoritarrez, okerrerakoak" izango direla uste izan arren, espero du urte berriak "bide argiagoak eta itxaropentsuagoak" erakustea.

Bergara ●  
**metagra**  
 México ● Group

**Gabon zorientsuak eta  
 urte berri on!**

# Lehengaien eta energiaren krisiak, gerrak eta inflazioak baldintzatu dute ekonomia

Urte gogorra izan da mundu mailako ekonomian eta horrek eragina izan du tokiko ekonomian ere. Energiaren krisia, lehengaien hornikuntza falta, gerra, inflazioa, interes tasen igoera... dira protagonista ukaezinak



RUT ZUBIZARRETA / EKONOMIA ETA FINANTZAK

## Hazkunde erritmoen geldialdia

**P**andemia ondorengo urtea dela ahaztu gabe, 2022 hau data eta momentu esanguratsu batzuentatik gogoratuko dugula dio Rut Zubizarretak, Mondragon Unibertsitateko ekonomialariak. Hasteko, lehengaien hornidurarik eza nabarmendu du, "honek mahai ganean jarri baititu herrialde gehientsuenek duten menpekotasuna lehengaien inportazioekiko". Gaur egungo gizartearen eta ekonomien beste ezaugarrietako bat "errekurtso naturalen mugarik gabeko erabilera eta energia iturrien agortzea" da eta aurreko biegi gehitu behar zaie Ukrainako gerra. "Krisialdi eta gerra guztien modura, gogor jo du ez Errusia eta Ukrainako ekonomietan soilik, baita Europa eta mundu osoko beste herrialdeetako adierazleetan ere. Europak Errusiari ezarri dizkion zigorrak batzen badizkiogu, hobeto ulertuko dugu gaur egun bizi dugun etengabeko prezioen igoera eta inflazioa. Konponbidea, ordea, ez da batere erraza, politika monetarioak ezarritako inflazio helburuak lortu ahal izateko baliabide bakarrenetarikoa interes tasaren igoera baita. 2023 rako aurreikuspen ekonomiko guztiak bat datoz: Europako ekonomia handien hazkunde erritmoek geldialdia izango dute. Honen arrazoi nagusienetako bat familien eskarien beherakada izango da".



MIKEL LEZAMIZ / SOZIOLOGOA

## Atzeraldian sartzetik gertu

**2**022. urtea gogorra izaten ari da munduko ekonomian, Mikel Lezamizen esanetan. "Arazoak 2020ko martxoan hasi ziren, COVID-19ren pandemiarekin mundua gelditu egin zelako, eta gehitu egin ziren 2021eko martxoan *Evergreen* kontainer-itsasontzia Suezko kanalean trabatuta gelditu zenean eta Asian ekoiztutako produktuen falta nabaritzen hasi ginenean. Gaur egun ere produktuen falta ez da konpondu, logistika internazionala desorekatuta gelditu zelako".

Ezin ahaztu gero etorri zela Ukrainako gerra. "Energiaren prezioaren igoerak inflazioa handitu du eta une honetan Ameriketako Estatu Batuetan %7an dago eta Europa osoan %11n. Inflazioa gelditzeko, interes tasak igo egin dira eta, kredituak lortzea okertu eta garestitu egin denez, ekonomia geldialdian dago. Alemania, Europaren motorra, atzeraldian ekonomikoan sartu da; Espainia ere datorren hiruhilekoan sartuko omen da". Euskal Herriaren ekonomia oraindik %2 igoko dela dirudiela dio Lezamizek, baina, produktu guztiak garestituta eta inflazioa %7ra igota, familia asko eta asko bizi-kalitatea mantentzeko arazoak izaten hasiko direla: "Gorriak ikustera helduko gara urte berrian".

# TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean  
ipintzera arte dena gure esku  
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatara  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara zabalik

Urte  
berri on!!

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK





Erosketa saskia eta dirua eskutan.

**XABIER BERASATEGI** / TTT GROUP-EKO ZUZENDARIA

### Ekaitz perfektuaren zain

**S**ektore desberdinetan diharduen enpresa da TTT Group eta urte hasiera bi kontuk erabat baldintzatu zutela dio hango zuzendari Xabier Berasategik: Covid-aren ondorengo aeronautikaren krisiak eta auto elektrikorako transformazioak. "Horri gehitu behar zaizkio lehengaien falta handia eta inflazioa handia". Azaldu du industrian kostu altuekin hasi zutela urtea, eta horri, energiarena batu zitzaizela, eta horrek guztiak errentagarritasunean eragin zuen. "Ukrainako gerrak are gehiago okertu zuen egoera; gehienbat, energiarekin lotuta. Urte bukaeran, ia %7ra iritsiko da Kontsumo Prezioen Indizea. Iaz, %6,5ekin hasi ginen eta eszenatoki inflazionista baten mantenduko gara. 2023ra begira, errentagarritasuna lortzeko, prezioak altxatzea beharrezkoa izango da eta horrek inflazioa handitzea dakar. Errentagarritasuna txarra bada eta eskaera jaisten bada, horrek sor dezake ekaitz perfektua. Eta gerta daiteke; izan ere, automozioa motel dabil eta errentagarritasun eta eskari faltarekin egoerak oraindik ere okerrera egingo du. Guri dagokigunez, albiste ona da sektore aeronautikoa errekupeazioan dagoela, baina esan behar dut nik sekula ez dudala ikusi horrelako egoera konplexurik, eta, gainera, kanpoko faktoreen oso menpe ikusten dut geure burua".

**AITZIBER ELOLA** / IKERTZAILEA

### 2022a, asaldura handiko urtea

**A**urrekoen iritzi beretik, "2020a eta 2021a bezalaxe, 2022a ere asaldura handiko urtea" izan dela dio Aitziber Elolak, Orkestrako ikertzaileak. Eta gehitu du behin COVID-19 pandemiaren aldi latzena gaindituta Ukrainako inbasioa eta hainbat merkatutako shockek, horien artean energiarena, lehengaiena, logistikarena eta beste hornikuntza kate kritiko batzuen, eragin nabarmena izan dutela. Horrek guztiak azken hamarkadetan ikusi ez ditugun inflazio mailak ekarri ditu, Elolaren hitzetan, eta banku zentralen interes tasak igo dituztela horri aurre egiteko. "Horrek guztiak gobernuek, familiek eta enpresek erabakiak hartzeko duten ziurgabetasuna izugarri areagotu du, energia eta ingurumeneko trantsizioan, teknologiko-digitaletan eta demografia eta gizartearen murgilduta dauden honetan", gehitu du.

Tokikora etorrita, besteak beste, BPG, enplegua eta esportazioak, oro har, euskal ekonomiak eta, bereziki, Debagoienekoak 2021ean hasitako suspertzea sendotzen jarraitzen dutela azaldu du Elolak, 2020an jarduera ekonomikoak izan zuten atzeraldiaren ondoren. Hala ere, ziurgabetasun handiko momentuak bizi ditugu, haren iritziak.

- **Ibargarai 24**  
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:  
**San Lorenzo pol. 9**  
**Amillaga 18**  
Tel.: 943 76 99 34  
BERGARA

**Ongi etorri 2023**



*Elena Elkorok 2023. urterako hoobereena opa dizue elgetar guztioi!*

*Urte berri on!*

# Herri guztietan daude mendi lasterketak, eta atletak eta zaleak ugaritu egin dira

Lau kirolarik urtearen errepassoa egin dute GOIENAREndako. Emakumezkoen eragina kirolean izaten dabilen gorakada nabarmendu dute laurek, eta, gainera, lautik hiruk mendi lasterketak izan dituzte berba



MARIÑE DIAZ / BKE-KO FUTBOL JOKALARIA

## Qatarren, emakumezko epaileak

**M**endi lasterketen zale amorratua dela aitortu du Mariñe Diazek, eta Malen Osak aurten egin duena nabarmendu du bergararrak. "Sare sozialetan jarraitzen dut Malen, eta badakit Madeiran jokatu duten Golden Trail Series lasterketa irabazi egin duela, urte ikusgarria egin du. Eta GOIENAn irakurri nuen Ibai Larrea gazte antzuolarra munduko skyrunning txapelketan txapeldunorde izan dela; nabarmentzekoa da hori ere".

Euskal Herri mailara salto eginda, eta futbol jokalaria den aldetik, Reala nabarmendu du: "Emakumezkoen taldea txapeldunen ligan lehiatu izana gauza handia da, eta, bestetik, Realak eta Athleticek elkarren kontra jokatu dituzten derbiak San Mamesen eta Anoetan jokatu dituzte. Alegia, futbol zelai handietan jokatzen dabilta emakumezkoak ere, eta hori positiboa da. Futbola alde batera utzita, joan den hilean Altunak eta Ezkurdiak Lau eta Erdiko Txapelketako finalean emandako ikusizuna sekulakoa izan zen".

Eta nazioartean, Qatarren jokatzen dabilta munduko txapelketan jarri du arreta BKEko kapitainak: "Gauza asko esan daitezke Qatarri buruz, baina emakumezko epaile eta marrazainak daude lehenengoz munduko txapelketa batean partiduak epaitzen".



IRATXE ALONSO / INTXORTAKO AHUNTZAK-EKO KIDEA

## Erreferente berriak trailean

**A**urten lehenengoz antolatu dituzte Elgetan eta Aretxabaletan mendi lasterketak, eta, azken urteotako bilakaera ikusita, Ahuntzak trail lasterketako antolatzaile Iratxe Alonsok azpimarratu du Debagoieneko ia herri guztietan mendi lasterketak daudela: "Leintz Gatzagan falta da bat antolatzea, gainontzeko herri guztiek badute berea. Gainera, herri bakoitzean kilometro kopuru, ezaugarri eta zailtasun askotariko lasterketak ditugu, eta korrikalari bakoitzak gehien komeni zaiona aukera dezake. Horrekin batera, lasterketak antolatzeko orduan, batetik, esanguratsua izaten da herri mailan izaten dugun babes, boluntarioen partetik... Baina, aldi berean, babesleak aurkitzea oso zaila izaten da".

Euskal Herri mailan, eta mendi lasterketekin jarraituta, Alonsok emakumezko erreferenteen gainean egin du berba: "Esanguratsua da erreferente berriak ditugula. Orain arte, Oihana Kortazar, Maite Maiora, Oihana Azkorbebeitia... izan ditugu hor, baina atzetik datoz Sara Alonso eta Malen Osa gazteak; eta indar handiz datoz, gainera".

Amaitzeko, nazioarteko lasterketa asko negozio bilakatu diren sentazioa askoren buruan dago: "Proba batzuek hasierako esentzia galdu dute, bai".

**ILEA**  
Ilapaindegia

**Zorionak**  
ETA URTE BERRI ON!

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA ilea peluqueria/ileapaindegia

**IOSU**  
harategia • taberna

**Gabon zoriotsuak guztioi!**

Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



BELEN ARANBARRI / ART-KO ZUZENDARITZAKO KIDEA

## Errugbia ez da gizonezkoena soilik

**B**elen Aranbarririk urteko errebasoa egiteko orduan arreta errugbian jarri du erabat: "Etxetik hasten banaiz, 2022a oso urte emankorra izan da, Arrasateko klubean emakumezkoek aurrerapausoa eman dute eta. Batetik, senior mailako nesken taldea egonkortu egin da eta, horrekin batera, amen taldeak horma asko apurtu ditu, estigma asko gainditu ditu. 35 urtetik gorako emakumezkoak kontaktuzko kirol bat egiten duela urte gutxi pentsaezina izango litzateke... Eta, hori gutxi balitz, ezin ahaztu errugbi inklusiboaren proiektua. Hor, desgaitasuna duten lau neska ditugu errugbian jokatzen. Normalean, desgaitasuna duten gazteen familiek beldur handia izaten dute, eta familia horiek erabateko konfiantza jarri dute gudan, eta euren alabak errugbian dabilta gurekin. Oso pozgarria da hori".

Euskal Herri mailan ere senior mailako emakumezkoen talde berriek egindako ekarpena azpimarratu du Aranbarririk: "Eta aurten Espainiako Errugbi Federazioko hauteskundeak egin dituzte eta lehenengoz emakumezko bat, Patricia Garcia, aurkeztu da lehendakari izateko. Oso proiektu polita zeukan esku artean, baina ez zuten hura aukeratu. Hau guztia ikusita, garbi daukat errugbia jada ez dela gizonezkoen kirola soilik".



IZAR BEDIA / MU-KO SASKIBALOI JOKALARIA

## Nadal? Serena Williams izan da onena

**D**ebagoieneko ikuspuntutik abiatuta, MUko jokalaria etxe barrura begiratu du lehenengo: "Ointxe!-n emakumezkoen saskibaloia alde egiten dabilta apustua nabarmena da. Lehenengo nazional mailara iritsi gara gu, eta egia da gaztetxoendako erreferente bilakatu garela, baina harrobiko neska horiekin asteroko entrenamenduetan egiten den lana da benetan azpimarratzekoa".

Saskibaloi jokalaria izanda ere, Bedia mendi lasterketak jarraitzen hasi da: "Uste dut pandemia garaian denok gerturatu ginela naturan egiten diren kirol jardueretara, eta trailak erakarri du nire arreta. Bada, Sara Alonso jarraitzen dut sare sozialetan eta aurten atentzioa eman dit: Zegama-Aizkorrin hirugarren, Montblanceko maratonia irabazi zuen... Ez da onena izango, baina sekulako indarra dauka, baita sufritzeko gaitasuna ere. Gainera, korrikalari gazteak datoz atzetik; badago erreleboa".

Nazioartean, Serena Williams erretiratu izana nabarmentzekoa da: "Emakumezkoendako ikonoa izan da. Sarritan entzuten dugu Rafa Nadal dela historiako tenis jokalaria onena. Eta ez, Serena Williams izan da historiako tenis jokalaria onena".



Bi mendi lasterketa jaio dira; irudian, Ainara Urrutia, Ikazkin Trailen.

**ZORIONAK**  
eta urte berri on  
**2023**

**ibili**  
www.ibilimenaje.com  
SINCE 1942

RPS: 227/16

**ESTELLA**  
FARMACIA-ORTOPEDIA SEKZ.  
Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

**Urte berri on!**

# Nazioarteko kulturgileak eskualdean eta mugak gainditzen bertakoak

"Konplexu bako" zinema-ekoizpenak, nazioarteko musikariekin osatutako jaialdiak, "ezohiko" literatura lan asko eta ikuskizun "ausart" ugari, euskal kulturgintzako sormena eta agenda "lehen lerroan" dagoen erakusle



IMANOL GALLEGO / ZINEMAN ADITUA

## Lore txikiek eztanda egin duten urtea

**T**xikia da euskal zinema-industria, baina nazioarteko industriaren fokuan egon da aurtan, ez bakarrik jasotako sariengatik; Imanol Gallego zinema adituaren ustez, hemengo ekoiztetxei kanpotik egindako enkarguak dira horren erakusle. "Txintxua Films-ek Netflix-entzako *Intimidación* telesaila egitea oso garrantzitsua da; are gehiago, emaitza ikusita. Eta aipagarria da oso Disney + plataformarentzako ari dela Moriarti ekoiztetxea *Balenciaga* euskal jostunaren telesaila errodutzen. Europa mailan duen apustu indartsuenetakoa da plataformarentzako *Balenciaga*. Sariez harago, errekonozimendu itzela!"

Kalitatezkoa eta zabala da euskal zinemagintza, Gallegoren ustez: "Genero, formatu, gai eta bestelako esparruei begiratu. Adibidez, *Irati*: mitologia era fantastikoan kontatuta, baina, aldi berean, oso lurrera ekarrita. Izugarriko aktoreak ditugu, ahaztu barik atzean dauden goi mailako teknikariak. Feroz eta Goya izendapenak badira, nolabait, urtearen argazkia ere, eta bitxia aurtengoa: Zuzendari Onenaren atalean, bostetik lau emakumezkoak dira eta aipatzekoa da baita katalanez eta galegoz bana eta euskarazko zatiak dituen film bat daudela. Zinema-aretoak ez daude, zoritxarrez, euren onenetan; pandemiako katarroa ezin gainetik kendu dabilta".



OIHANA ARANA CARDENAL / BERTSOLARIA

## Txapelketez eta saioez harago

**E**uskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian jarri du arreta Oihana Arana bertsolariak. "Bitxia izan da; finala horren erakusle. Aurpegi berri asko daude. Finala Nafarroan jokatzea, aldaketa interesgarria eta beharrezkoa! Pozik nago Maialen Lujanbiok hirugarren txapela eskuratu duelako".

Aramaioko Bertso Eskola ere txalotu du. "Peru Abarrategik jantzi zuen, ekainean, Arabako txapela, eta deigarria da sei finalistetatik lau aramioarrak izatea. Eskola bereko Ane Zuazubiskar arrasatearrak Osinalde saria irabaztea ere aipagarria!"

Ohiko saioez harago, bestelako ikuskizunak plazaratu dituzte bertsolariek; esaterako, Oihana eta Haizea Arana ahizpek Aner Peritzekin eta Leire Vargasekin *Erre: aldarri bat bertsoz*; otsailean estreinatua, 40 saio "arrakastatsu" egin dituzte. "Ezin izan dut gura beste ikuskizun ikusi, baina Maialen Lujanbioren *RR*, adibidez, ederra iruditu zitzaidan, bertso oso onak eta estetika oso bitxia. Asko poztu nau, era berean, Ines Osinaga *Mauriziak ez dau inor hil* lanarekin taularen gainean ikusteak; gaur egun Euskal Herrian dagoen lan onenetakoa da, nire ustez. Txalo bero bat, baita ere, Formol taldearen *Album* antzezlanari".



Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitortpena

*Urte berri on!*



Errementari plaza 2-3 behea, • OÑATI



MITARTE 1  
ARETXABALETA  
943 77 13 79  
636 02 39 96

**A R E D E R  
A R R A N D E G I A**

*Zerionak eta urte berri on!*



AINHOA VITORIA / GAZTEAKO ESATARIA

## Musika ekoizpen eta eskaintza oparoa

**D**anbaka lehiaketa berrabiaraztea txalotu egin du Ainhoa Vitoria arrasatearrak: "Eskualdeetan sortutako halako ekimenak ezinbestekoak iruditzen zaizkit; Goienak antolatutakoa, adibidez. Beharrezkoa formazio berriak bultzatzeko, baina ahaztu barik kultura eskaintza aberasten duela. Korrante rock-zaleak indarrez jarraitzen du, baina poztekoa da musika urbanoak duen goraldia. Aurten kaleratu diren diskoei begiratuta, ikaragarria iruditzen zait Neomak taldearen proposamena, baita Ines Osinagaren berragertzea ere".

Jaialdien bogan ere jarri du arreta kazetariak. "Arrasaten, Mondra&Roll; Bergaran, Ekinez; eta Elgetan, Josu Azkarateren omenezkoa. Eskualdeko *ohiko* estiloaren erakusleioak izan dira, baina ederra da bestelakoei ere tokia egitea; laugarren Arrasate Blues jaialdia, esaterako. Musikalen sormen oparoa ere ezin ahaztu eskualdean; *Hazia* da adibide bat, baina ez bakarria. Talentu handia dagoela ikusi da, publiko orokorarentzako oraindik ere genero arrotz samarra dela sumatzen dudan arren".

Delirium Tremens, Hertzainak eta MCD taldeak ere aipatu ditu: "Itzulera interesgarriak, nire ustez, belaunaldi askotariko musikazaleak batzeko".



Bosgarren Danbaka musika lehiaketa antolatu du aurten Goienak.



ENEKO BARBERENA MONDRAGON / IDAZLEA

## Saridunak eta saria merezi dutenak

**A**urten "ezohiko lanak argitaratu dira", dio Eneko Barberenak, Debagoieneko idazleen lanez galdetuta; eta esku artean izan dituen batzuk aipatu ditu. "Asun Agirianoren lehenengo obra, *Atzamarra*, harribitxi bat da. Gai delikatua, baina oso ondo kontatuta, eta bisualki ere berezia. Andoni Urzelairen *Ametsen trafikatzaila* ezohiko trama da; protagonista doilor bat ageri da, eta ez da horren ohikoa gure literaturan. Aipamen berezia merezi du baita John Anduezak ere; gazteen ikusmoldera heltzen da, eta interesgarria da hori".

Itziar Ugartek iaz argitaratu zuen *Gu gabe ere* liburua ere goraiatu du. "Errekonozimendua ari da jasotzen; merezita: Espainiako Kritikaren Saria apirilean, eta, berriki, Lauaxeta saria jaso du. Poesia-lan mardula da". Irati Jimenezen *Begiak zabalduko zaizkizue* aukeratu du Euskadi Literatura Sarietara. "Literaturarekiko maitasuna duen pertsona batek idatzitakoa da. Fokuan jartzen ditu hitz egiten ez diren hainbat gai, kariñoz eta bustita".

Txalotu egin du komikien uzta ere. "Elkar-en *Ni ez naiz Mikel Laboa* eta *Lurbintoko ohoinak* eta Farmazia Beltzaren *Cero Calcare* italiarraren azkeneko obra gomendagarriak dira, adibidez".



autopullmans

Araba



Urte berri on!



Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52  
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



**JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA**  
AZE-KO KIDEA **ARRASATE**



Etorkinekiko mesfidantza handia dago oraindik, baina herria aberasten ari dira; haien seme-alabak dira etorkizuneko arrasatearrak.



Arrasateko biztanleriaren jaitsierak eta komertzioen itxierak kezkatzen nau; geldo bada ere, geriatriko bilakatzen ari da, gazteak joaten ari dira.



**DANIELA CASTRO**  
AMERIKA ELKARTEKO KIDEA **ARRASATE**



Momentu zailetan herritarrek erakutsitako elkartasunari ematen diot balioa; kooperatuz eta elkartuta gaindiezinak eta geldiezinak garelako.



Prezioen igoera eta gerrak gaitzesten ditut; beti langile klaseak ordaintzen ditu gaixo dagoen sistema honek eragindako krisiak.



**AITZOL ILLARRAMENDI**  
AED-KO KIDEA **ARRASATE**



Euskara sustatzeko ekintzek Arrasaten duten indarra nabarmenduko nuke, bai urteroko ekintzetan, bai eta berrietan ere.



Zerbitzu publikoetan gertatzen ari den gainbehera agerikoa da. Uste dut herritarrok gehiago exijitu behar diogula Administrazioari.



**KRISTINA HERNANDEZ**  
ARETXARTE MERKATARIEN ELKARTEKO  
PRESIDENTEA **ARETXABALETA**



Jendearen jarrera: gertatu den prezioen igoeratik egoera larria izan arren, herritarren babesa jaso dugu, bertan erostearen alde eginda.



Herriko hainbat denda itxi izana; pentsa komertzioak itxiz gero zer gertatuko litzatekeen: kaleak hutsik, girorik ez, ilun... Zer pentsatua ematen du.



**IÑIGO IÑURRATEGI**  
KOOPERATIBISTA **ARETXABALETA**



Herriko auzolanak; adibidez, erreka garbiketa, jaietan gazteen egitaraua, jubilatuen Aretxabaleta Lagunkoia eta Ametza ikastolari laguntza.



Azkenaldiko zatiketa eta elkarlanaren kontrako dinamikak kooperatibagintza eta hezkuntza arloetan, besteak beste.



**JASONE ORBEGOZO**  
ERRETIRATUA **ESKORITZA**



4/2022 Legea: araudiak indartu egiten ditu kontsumo-harremanetan babesik ez duten kolektiboak. Adinekoentzat urrats bat da.



Banku-bulegoak ixten ari dira, kanpoko kutzazain automatikoak ixtea barne. Beraz, adinekoak gero eta mendekoagoak dira.



**HODEI PECIÑA**  
HERRITARRA **ESKORITZA**



Herritarrek bertako produktuei ematen dieten balioa; izan ere, jendea kontzientziatuta dago, eta hori pozgarria da.



Antsietate, depresio eta suizidio kasuen gorakada eta, hain zuzen ere, horri aurre egiteko ditugun erraztasun urriak.



**MARCELINA PLAZAOLA**  
HERRITARRA **LEINTZ GATZAGA**



Ondo nago osasunez, eta ondo zainduta; urtea bukatzen ari dela, inguruan ditudanen maitasuna nabarmenduko nuke aurten.



Telebistan borrokak eta gerrak besterik ez dago. Nekatuta nago halakoak ikusteaz; ea zer gertatzen den etorkizunean...



**SONIA ETXENAUZIA**  
HERRITARRA **ARAMAIO**



Eolikoen kontura, espero baino herritar gehiago ikusi dut kapitalismoaren inpaktuaren aurrean hausnartzen.



Ur falta. Zientzialariek eta ekologistek zioten klima aldaketaren ondorioak oso nabarmen igarri dira aurtengo udan, baita Aramaion ere.



**MIKEL ARANTZABAL**  
HERRITARRA **ARAMAIO**



*Aita Mari* proiektuaren lana txalotzekoa da; eta Euskal Herriarentzat, Irulegiko Eskua berri ona. Arlo pertsonalean, Iradi ilobaren jaiotza.



Ez dago eskubiderik hainbat presori hirugarren gradua kendu izana. Ez al gara denak berdinak? Migratzaileen arazoa eta gerra ere hor daude.



Aretxabaletako  
Udala

**Eguberri zoriontsuak eta urte barri on!**



**ELI DOMINGUEZ**  
NDANK NDANK BERGARA



Senegalen eta Debagoienaren arteko zubia indartzen goaz, kultura ezberdinen arteko harremanak sendotzen eta haren balioak hedatzen.



Afrikako ikuspegi paternalista indartzen da oraindik ere hezkuntzan eta obra batzuetan, arreta esklabotzan eta kolonialismoan jartzen delako.



**ANDER ARANBURU**  
LAZPIUR BERGARA



Pandemiak behartutako neurrien bukaera, proiektu berrien hasiera eta familia eta lagunekin igarotako uneez gozatzen ikastea.



Inflazioa eta absentismoa; Ukrainako gerra eta horniduren kostuak; Euriborraren igoera; eta ziurgabetasun teknologikoa etorkizuneko mugikortasunean.



**EIDER USOBIAGA**  
ESKUBALOI SAILA BERGARA



Nesken eskubaloia asko indartu da aurtan. Neska ugari konfiantzaz eta gogotsu dabilta kirolean. Ondorengoan eredu izatea espero dugu.



Neska gazteek ikasketekiko duten presioa handia da, orokorrean. Hori dela eta, sarri, kirola egiteari edo aisialdiari uko egiten diote.



**SARA ARIETALEANIZBEASKOA**  
ARROLA ANTZUOLA



Zientzia, teknologia, ingeniariaritzia eta matematika (ZTIM) alorretako lanbideetan emakumeen presentzia sustatzeko ekimenak.



Osasun sistema publikoaren dekadentzia, profesionalen pertsonak artatzeko duten denbora faltan eta itzarote-zerrenda luzeetan islatuta.



**JOXE ANGEL ARBULU**  
LANDATXOPE ANTZUOLA



Bi urte ia etxetik irten gabe egon ostean, pozgarria izan da aurtan erretiratuen uztaileko bazkarian aurpegi irribarretsua berrituz ikustea.



Udan eta udazkenean izan ditugun bero zakarrak; klima aldaketaren ondorio dira. Eguneroko gauza txikiekin ere badago hori geldiaraztea.



**MAIALEN ALTUNA**  
HOTZ OÑATI OÑATI



Jendearen eta herritarren elkartasuna. Horri esker jarraitzen dugu laguntzen beharra duenari, bestela ezingo genuke eta egin.



Giza eskubideak oraindik ukatu egiten dira. Jatea, batetik bestera mugitzea, duintasuna... Oinarrizko eskubideak ez dira betetzen.



**JESUS MARI ARANBURU**  
ELKARZABAL OÑATI



Irakurri dut paperik ez dutenei eman egingo dizkietela esan duela Espainiako Gobernuak. Nork sinistu. Denok gara eta berdinak.



Etorkinek oso zaila dute etxebizitza edo gela bat aurkitzea. %2,5, gainera, paperik gabekoak dira. Gainditu egiten gaitu egoerak.



**ELENA IBARRONDO**  
GURUTZE GORRIA OÑATI



Egoera zein den ikusi arren, aurrera ateratzen ditugula, oraindik, gizarte mailako proiektuak zein osasun arlokoak



Boluntarioen interesguneak aldatu egin direla. COVIDaren ondoren, beraien lehentasunak beste batzuk dira eta laguntzea beste plano batean gelditu da.



**NEREA VILLA ARANTZETA**  
HEZITZAILEA ELGETA



Urduñako hilerrian aurkitutako biktima frankisten 53 gorpuzkiak eta abiarazitako identifikazio eta entrega prozesua.



22 urteko Mahsa Aminiren heriotza; Irango Moralaren Poliziak hil zuen. Herrialdean sortutako erantzun soziala nabarmentzekoa da.



**GORKA ARIZMENDIARIETA**  
LACTURALEKO AHOLKULARI KOMERTZIALA ELGETA



Elgetan koko-batzea herri ekimenak arrakasta eduki izana. Bestetik, gure interpretazio zentroan bisitak berriz ere martxan ikustea.



Herrietako komertzio txiki askoren itxiera. Bestetik, herri mailan gero eta zerbitzu gutxiago edukitzea, eta herriak ez hausnartzea.

**DANBAKA** MUSIKA LEHIAKETA

**FINALA**

**AIERT ARRAGOA**  
**THE CLAYTON**  
+  
Artista gonbidatua: DJ Gela

LABUNTZARILEA

ANTZOLATZARILEA

Bergarako Seminarixoa  
**Urtarrilaren 13an, egubakoitza | 21:30**

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera,  
San Martin plazan DOAN

# Etxe-Lan



**GALDARAK ETA**  
**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK**  
mantentzea eta konpontzea

**943 79 89 97**



**INTERGAS**



Ostalaritzako, garbitegiko  
eta hotz industrialeko  
**SOLUZIO INTEGRALAK**



**943 79 12 30**

[www.etxe-lan.com](http://www.etxe-lan.com)

*Urte berri on!*